

Hizkuntza Plangintzan Graduondokoa

Sakontze egitasmoa

***HIZKUNTZA PAISAIA NAFARROAN: KALEKO
ERROTULAZIOAN EUSKARAREN
PRESENTZIAREN AZTERKETA***

Lur ALBIZU ETXETXIPIA

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
ASMOZ FUNDAZIOA**

Ikaslea

Lur ALBIZU ETXETXIPIA

Izenburua

Hizkuntza paisaia Nafarroan: kaleko errotulazioan euskararen presentziaren azterketa

Ikasketak

Hizkuntza Plangintzan Graduondokoa

Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea. Asmoz Fundazioa

Tutorea

Gemma SANGINES SAIZ

Ikasturtea

2017/2018

Laburpena

Eskuarteaz duzun lan honetan, Nafarroako lau udalerri desberdinetako hizkuntza paisaiaren azterketa egin dugu. Honetan, hizkuntza paisaiak tokian toki bizi dituen aldaketan inguruko analisia egin eta horrek hizkuntza politikekin duen zerikusia aztertu dugu.

Lanean zehar tokian tokiko hizkuntzen errealitatea eta euskararekiko tratamenduaren analisia egin eta denboran zehar bizi izan dituen aldaketak izan ditu hizpide. Hizkuntza paisaiak hizkuntzen aniztasunean eta prestigioan duen eragina aztertu dugu eta euskararen normalizaziorako tresna moduan aztertu dugu, Nafarroako errealitatera ekarrita.

Hitz gakoak: hizkuntza paisaia; hizkuntza politikak; Nafarroa; hizkuntza gutxituak.

AURKIBIDEA

Sarrera	1
1. Nafarroako egoera soziolinguistikoa	4
1.1 Euskararen Legea eta euskararen estatusa	4
1.2 Hizkuntza gaitasuna	7
1.3 Euskararen erabilera	8
2. Marko teorikoa	11
2.1 Diskurtsoa, boterea eta ideologia	11
2.2 Hizkuntza paisaia	13
2.3 Hizkuntza ekologia	16
2.4 Asimilazioa, integrazioa, segregazioa	21
3. Metodologia	23
3.1 Datu bilketa	23
3.2 Herriak	24
3.2.1 Artaxoa	24
3.2.2 Artazu	25
3.2.3 Elizondo	25
3.2.4 Gares	25
3.3 Hizkuntza paisaiaren azterketa	26
4. Emaitzak	30
5. Ondorioak	42
Bibliografia	45
Eranskinak (argazkiak)	52
Artaxoa	52
Artazu	55
Elizondo	56
Gares	57

SARRERA

Zer da hizkuntza paisaia? Nola eragiten du gizartean? Ba al du zerikusirik tokian tokiko errealitate soziolinguistikoarekin? Zein muga eta zein onura ditu? Zein lanketa egiten dute instituzio publikoek honekiko? Errealitate soziolinguistikoaren eta legalaren isla izan daiteke? Ba al du hizkuntza paisaiak eraginik euskararen normalizazio prozesuan? Hitzunengan eraginik dauka? Hizkuntza politikak denboran zehar nola aldatzen dira tokian toki?

Aurrerago sakonduko dugu hizkuntza paisaiaren definizioan, baina eremu publikoan dauden seinale, testu eta adierazpen guztiek osatzen dute hizkuntza-paisaia (Landry & Bourhis, 1997). Hori oinarri hartuta eramanen dugu aurrera honako ikerketa hau.

Hizkuntza paisaia aztertzen hasita, asko dira, lehen aipatu dugun bezala, geure buruari egiten ahal dizkiogun galderak. Azterketa eremua oso zabala izan daiteke, eta espazio eta espresio anitz hartu bere baitan. Horregatik, gure ikerketan eremu hau mugatu egin dugu; azterketa egingen dugun herrietako kaleko errotulazioei erreparatuko diegu soilik oraingoan. Jakin badakigu datu mugatuak direla horiek eta azterketa osoago batek erantzun gehiago eta globalagoak emanen lizkigukeela. Hala eta guztiz ere, ikerketak egiten jarraitzeko abiapuntu bat izatea espero dugu, alor honetan eremu, espazio eta arlo asko egon baitaitezke ikerketa baten zain.

Hizkuntza paisaia izanen dugu hizpide lan honetan, baina hori aztertzeko beste hainbat edukiri erreparatu beharko diegu bide osoan zehar. Izan ere, hainbat dira ezagutzeko ditugun edukiak.

Alde batetik, eta aztertzen ari garen eremua kontuan hartuta, Nafarroako egoera soziolinguistikoa aztertuko dugu; ezinbestekoa zaigu Nafarroan bizi den errealitatea ezagutzea hipotesi eta ondorio konkretu batzuetara iritsi ahal izateko. Beraz, Nafarroan eremuz eremu euskararen egoeraz zertzelada batzuk ezagutuko ditugu: Euskararen legea eta hizkuntzaren estatusa eremuz eremu, zein ibilbide izan dituen legeak berak eta zein dekretuk ekarri dituzten aldaketak azken urteetan; euskararen ezagutza eta

gaitasuna nola dagoen banatuta herrialde osoan zehar; eta euskararen erabilera gaur gaurkoz zertan dagoen eta zein bilakaera izan duen azken urteetan. Geure aburuz, hizkuntza paisaia eta hizkuntzaren egoera bera elkarlotzen dira eta zerikusia dute haien artean.

Beste alde batetik, marko teorikoan hainbat eduki jorratuko ditugu: hizkuntza paisaia zer den eta zertan oinarritzen den ikusiko dugu, baita honen inguruan mintzatu diren ikerlari eta teoriak ezagutu ere. Gure ustez, hizkuntza paisaiarekin lotuta daude hizkuntzen arteko loturak eta harremanak: hori dela eta, diskurtsoa, ideologia eta boterea kontzeptuak hartu eta diskurtsoaren ikerketa kritikoen ikuspuntutik aztertuko ditugu. Gainera, hizkuntza ekologiaren teoria ezagutuko dugu: izan ere, gure hipotesi eta ondorioetan hizkuntza aniztasunean eta hizkuntzen arteko ukipen eta elkarbizitzan oinarrituko gara ikerketa egiten dugunean. Beraz, hizkuntza ekologiak eskaintzen dizkigun aukerak aztertu eta teoria hau gertuagotik ezagutu ahal izanen dugu.

Baina... zer aztertuko dugu? Lan honetan zehar Nafarroako lau herritako kaleen errotulazioan euskararen eta gaztelaniaren presentzia eta hauen arteko harremana aztertuko ditugu. 18/1986 Vascuenceren Legeak ezartzen duenaren arabera, hiru eremu desberdinetako –eremu euskaldun, misto eta ez-euskalduna- herrietan eginen dugu azterketa hau. Lau herri eta ez hiru aukeratzeak honako erantzun hau dauka: 2017ko ekainean Nafarroako eremu ez-euskaldunean kokatuta zeuden berrogeita lau udalerrik eremu aldaketa eskatu eta eremu mistora pasatu ziren. Haietako bat hartuko dugu aztergai, honetan ere hizkuntzen arteko harremana zein den ikusi ahal izateko. Lau herri hauetako kaleen errotulazioa hartuko dugu analisirako esparru: Artaxoa (eremu ez-euskalduna), Artazu (eremu ez-euskaldunetik mistora pasa zen 2017ko ekainaren 1ean), Gares (eremu mistoa) eta Elizondo (eremu euskalduna).

Metodologiari dagokionez, lau herri hauetako karriketako errotulazioa hartu dugu analisirako eremu gisa. Hortaz, azterketa hau argazkien bidez eginen dugu bide honetan zehar. Hizkuntza paisaia oso zabala da bere osotasunean, eta horregatik mugatu dugu kaleetan dagoen errotulaziora. Gainera, aintzat hartzekoa da testuinguruari eta euskararen estatusari berari ere arreta jarri nahi diogula, eta beraz, instituzioek

hizkuntzarekiko eta hizkuntza paisaiarekiko duten tratamendua garrantzitsua dela testuinguru horretan. Horregatik estutu dugu ikerketa kaleetako errotulazioetara; herrietan dauden edo urteetan zehar egon diren hizkuntza politikak aztertzeako aukera emanen digulakoan gaude.

Hizkuntzen arteko harremanak zehazteko erabiliko ditugun aldagaiek zerikusi zuzena izanen dute aurretik aipatu ditugun eduki teorikoekin.

Gure lanaren helburuak honakoak dira: alde batetik, aztergai ditugun herrietan hizkuntza paisaia ofiziala (hau da, Udalek aurrera eramaten dutena eta errotulu ofizialetan islatzen dena) aztertzea, bere nolakotasun eta ezaugarriekin. Beste alde batetik, honetan hizkuntzen arteko harremanak aztertzea eta ezagutzea. Bukatzeko, hizkuntza paisaiak herrietako hizkuntza politikekin duen zerikusia aztertzea eta bertako hizkuntzen inguruko tratamendua azaleratzea.

Gure hipotesiei dagokienez, honakoak dira guk erabiliko ditugunak: gure ustez, herrietako hizkuntza paisaiak zerikusi zuzena izanen du herrietan udalek eta bestelako instituzioek darabilten hizkuntza politikekin. Hau da, hizkuntza paisaia garaian garaiko hizkuntza politikaren isla izanen dira, eta hala, gure aburuz, instituzio publikoen euskararekiko jarrera islatuko dute. Euskarak tokian toki duen estatusa gakoa izanen da kasu hauetan guztietan.

Gure ikerketa aurrera eramateko erabiliko ditugun galderak, beraz, hauek izanen dira: ba al du zerikusi zuzenik erabiltzen den hizkuntza paisaiak herriko hizkuntza politikekin? Egonkorra al da hizkuntza paisaia edo garaian garai aldatzen den zerbait da? Estatikoa da hizkuntza paisaia, edo aldakorra?

Nafarroan euskararen estatusa eta hizkuntza politikak aztertzeako asko duten alorra dira; are gehiago, azken hilabeteetan eman diren aldaketekin eta azken aste eta hilabeteetan Euskararen Lege berri bat martxan jartzeko osatu den batzordearekin. Dena den, hizkuntza paisaia aztertzea garrantzitsua iruditu zaigu, hizkuntza baten osasuna neurtzeko ezinbesteko tresna bezala. Testuinguru honetan erabaki dugu Nafarroako herri desberdinetako hizkuntza paisaiaren zati bat aztertu eta honekin ondorioak

azaleratu eta aurrera begirako lan bat izatea eskuartean duzun hau. Ertz askotako gaia, etorkizunean ere, gure ustez aztertzeke asko izango duena.

1. NAFARROAKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Nafarroako egoera soziolinguistikoaren inguruko hurbilpen minimo bat egitea ezinbestekoa egingen zaigu ikerketaren nondik norakoak ulertzerako orduan. Egoeraren eta Nafarroan euskarak duen estatus legalaren inguruko sarrera bat egingen dugu oraingoan.

Egiten ari garen azterketan eta hizkuntza paisaiaren analisia egiterako orduan, kontuan hartu behar da hizkuntza anitz agertzen ahal direla, hizkuntza paisaia, neurri batean, tokiko hizkuntzen arteko ukipenen eta elkarbizitzaren isla izan daitekeelako. Badakigu, hala ere, hizkuntza paisaiak ez duela guztiz islatzen kalean dagoen hizkuntza aniztasuna. Kaleetako errotulazio ofizialak hartuko ditugunez analisiaren oinarri, kontziente gara bi hizkuntza aurkituko ditugula gure azterketan zehar (ezustekorik ezean): gaztelania eta euskara. Horregatik, azken honen estatusa ezagutzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Gerora aztertuko dugu hizkuntzen arteko ukipena eta harremanak nola ematen diren edo eman daitezkeen hizkuntza paisaiaren baitan.

Estatus legalari erreparatzeko, Euskararen Legeari buruz mintzatuko gara atal honetan, eta Nafarroan euskarak bizi duen egoeraz hitz egiteko, Eusko Jaurlaritzak plazaratu dituen azken bi ikerketa soziolinguistikoak hartuko ditugu oinarri: 2011n argitaratu zen V Inkesta Soziolinguistikoa eta 2016an ezagutu genuen VI Inkesta Soziolinguistikoa.

1.1 Euskararen Legea eta euskararen estatusa

Nafarroako Euskararen Legea 1986an onartu egin zen, Vascuenceren Legea izenez ezagun egin zena (*Ley Foral del Vascuence*; aldaketa instituzionalaren ondoren aldatu zitzaion izena *Ley Foral del Euskerara*). Lege honek biltzen duen berezitasunik handiena (harritzekoena) da eremuka banatzen duela eta sailkatzen duela euskararen ofizialtasuna Nafarroan zehar. Horren arabera, euskararen ofizialtasuna eta, beraz, arlo

Sakontze egitasmoa

administratiboan eta instituzionalean daukan presentzia ezartzen da legea onartu zenez geroztik. Hiru eremutan banatzen da, beraz, Nafarroako Foru Komunitatea, lege honen arabera: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez euskalduna. Horrek herritarren hizkuntza eskubideetan eragin zuzena du eta izan du azken hogeita hamar urtetan.

Lege honek esaten duenaren arabera, euskara ofiziala da, gaztelaniarekin batera, Nafarroako eremu euskaldunean. Horrela, Nafarroako berezko hizkuntza gisa hartzen ditu euskara eta gaztelania. Lege honen 1. artikulua aipatzen ditu legearen helburuak: “herritarrek euskara erabili eta erabiltzeko eskubidea babestu eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztu; euskararen berreskurapena eta garapena babestu, bere erabilera sustatzeko bideak ezarriz; euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideak jarraituz, betiere errealitate soziolinguistikoaren arabera”.

Eremuaren arabera, herritarrek eskubide ezberdinak dituzte Nafarroan. Eremu euskaldunean, euskara ofiziala da gaztelaniarekin batera, eta estatus zabala aitortzen zaio erabilera eta irakaskuntzan; eremu mistoan, aldiz, ez da ofiziala, baina nolabaiteko babesa eskaintzen du. Eremu ez euskaldunean egoera zaurgarriagoa da, ez da neurririk aurreikusten eta euskararen aldeko neurriak hartzea lege ez dago babestuta. Egoera hauskorragoa da eremu ez euskaldun osoan.

Hezkuntzaren eremuan hainbat aldaketa eman dira legea onartu zenetik. Legeak esaten du “behar diren ekintzak” aurrera eramango dituela irakaskuntzan. Eremu euskaldunean, hezkuntza ez unibertsitarioan, bi hizkuntzak ikasi behar dituzte ikasleek nahitaez (murgiltze eredua edo euskara ikasgai duen ereduaren artean aukeratu behar dute ikasleek). Eremu mistoan, eskatzen den ikastetxeetan sartzen da euskara irakaskuntzan. Hurrek D (murgiltze) eredu, A eredu (gaztelania oinarri baina euskara ikasgai) eta G eredu (erdara hutsean) ikasten ahal dute eremu mistoan. Eremu ez euskaldunean, aldiz, legeak esaten du botere publikoek eskariaren arabera euskara bultzatuko dutela, eta hala behar izanez gero partzialki finantzatuko dutela. Praktikan, 2014ra arte ez zaio aterik zabaltzen D eredu irakaskuntzari Nafarroan. Ordura arte, hezkuntza publikoan ez zen posible euskaraz ikastea eremu ez euskaldunean. 2014an ateak ireki zizkion horri Nafarroako Parlamentuak, eta legean hainbat aldaketa egin ziren. 2015eko ikasturtean hasi ziren matrikulazioak zabaltzen eremu ez euskaldunean. Sakontze egitasmoa

Urtez urte eskaintza eta eskaria, oso poliki bada ere, handitzen ari da eta leku gehiagotara zabaltzen. Prozesua motela da baina aurrera doa; izan ere, ezin dugu ahaztu aurreko gobernuetan euskararen aldeko hizkuntza politikarik ez zela egiten Nafarroan.

Hamarkadatan zehar Nafarroan egon den hizkuntza politika publikoak mesede gutxi egin dio euskarari. Zonifikazioa bera eta eskubide urraketa zonifikatu hori bera dugu adibide, baina beste hainbat ere bai: azken urteetan Euskal Telebista ikusi ahal izateko egon diren zailtasunak, Euskalerrria Irratia (Iruñerrian euskaldunentzako prestigiozko eta erreferentziazko komunikabidea, euskara hutsean den bakarra) hamarkadatan zehar irrati lizentziarik gabe edukitzea, komunikabideei dirulaguntzen murrizte handia... 2015etik aurrera berriz urratsak aurrerantz ematen ari dira, zonifikazioarekin momentuz apurtu ez den arren.


Legeak garapena izan du azken hogeita hamar urtetan zehar, eta zenbait dekretuk pisua hartu dute: lanpostu publikoetan nahitaezkotasun eta merituek ezartzen zituen; osasun postu batzuetan euskara jakitearen nahitezkotasuna ezabatzen zuena (baita eremu euskaldunean ere); D eredua sare publiko osora zabaltzen zuena; eremu ez euskaldunetik eremu mistora haien eskaeraz pasatu ziren hamarnaka udalerriak...

2017an gertatu zen aldaketa politiko handiena ekartzen ahal duen mugimendua: batzorde berri bat eratu da Nafarroako Parlamentuan; honek izanen du ardura Euskararen Lege berri baten proposamena egiteko. Ikusteke dago honek zein bilakaera izanen duen eta Lege berria onartuko den.

Eremu hauen pisu demografikoa aintzat hartzen baldin badugu, eremu euskaldunean Nafarroako biztanleriaren %9a bizi da, gutxi gora behera. Eremu mistoan, aldiz, %55a, eta eremu ez-euskaldunean %36a.

Honakoa da Nafarroako zonifikazioaren mapa, 2017. urtean egin zen legearen aldaketaren ondoren. Izan ere, berrogeita lau izan ziren eremu ez euskaldunetik eremu mistora pasa zirenak, eta bat eremu mistotik eremu euskaldunera pasa zena. Horrela, Atetz eremu mistotik eremu euskaldunera pasatu zen, eta hauek izan ziren eremu ez euskaldunetik mistora pasa ziren udalerriak: Abaigar, Adiotz, Allin, Amezkoabarren, Antzin, Añorbe, Aranatzxe, Arellano, Artazu, Bargota, Beriain, Biurrun-Olkoz, Cabredo, Deikaztelu, Eneritz, Erriberri, Eulate, Galoze, Garinoain, Itzagaondoa, Larragoa, Leotz, Lerga, Longida, Mendigorria, Metauten, Mirafuentes, Murieta, Obanos, Oibar, Oteitza, Sakontze egitasmoa


Puiu, Tafalla, Muru Artederreta, Tirapu, Untzue, Urralbeiti, Urrotz Hiria, Uxue, Villatuerta, Zangoza, Zirauki eta Zuñiga.



1.2 Hizkuntza gaitasuna

Ikerketa soziolinguistikoek ematen dituzten datuak eremu linguistikoka banatuak dira. 2011ko ikerketaren arabera, eremu euskaldunean %59,3 ziren eta elebidun hartzaileak %12,6. Eremu mistoan elebidunak %9,8a eta elebidun hartzaileak, berriz, %9,6a. Eremu ez euskaldunean, aldiz, %2,3a ziren elebidunak eta %3,1 elebidun hartzaileak:

Hizkuntza-gaitasuna lurraldearen arabera. Nafarroa, 2011 (%)



Oharra: zirkuluen tamaina lurralde bakoitzeko biztanleriaren arabera da


Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak, 2011.

Sakontze egitasmoa

2016ko inkestari erreparatzen badiogu, azpiko grafikoan agertzen direnak dira ditugun emaitzak. Eremu euskaldunean %61,1a dira elebidunak, eta %13,4 elebidun hartzaileak. Eremu mistoan, berriz, euskaldunak %11,3a dira, eta %12a euskaldun hartzaileak. Eremu ez euskaldunari erreparatzen baldin badiogu, euskaldunak %2,7a dira eta euskaldun hartzaileak %6,8a.


Bi inkesten arteko konparazioa egiten badugu, ikus dezakegu oro har goranzko joera duela euskararen gaitasunak Nafarroan eremu guztietan. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu joera hau motela dela, batez ere eremu ez euskalduna deritzogun horretan. Datuek, halaber, eremuka egoera zein desberdina den erakusten digute.

Hizkuntza-gaitasuna eremuaren arabera. Nafarroa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

1.3 Euskararen erabilera



2011an egin zen kale neurketa izanen dugu oraingoan hizpide. Hasteko, esan beharra dago kale erabilera urte horretako udazkenean %13,3koa izan zela. Soziolinguistika klusterrak aipatzen duenaren arabera, hogeita bi urteko epean 2,5 puntu igo da euskararen erabilera, Euskal Herria osoa kontuan hartzen badugu. 2001eko datuak eta 2011koak ez dira batere aldatu.

Goiko grafikoan ikusten ahal dugun bezala, 2006az geroztik 0,4 puntu jaitsi da erabilera, baina errorea kontuan hartuta, bere horretan jarraitzen duela esan dezakegu, aldaketarik gabe. Orokorrean, beraz, ez da erabilera ez handitu eta txikiagotu. Aipagarria da euskara, gaztelania eta frantsesaz aparteko hizkuntzak hartzen ari diren garrantzia eta presentzia gero eta handiagoa.

Nafarroako datuei dagokienez, 90. hamarkadan erabilerak pixka bat behera egin ondotik, egonkor jarraitu du hurrengo urteetan, 2001az geroztik. %5,7an dago euskararen erabilera nafar lurraldean.


2016ko inkestak ematen dizkigun datuek honako hau esaten digute: alde batetik, Foru Komunitateko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %12,2ak erabiltzen du euskara neurri batean ala bestean. Hauetatik guztietatik, %6,6k euskara egunerokoan eta gaztelania baino gehiago edo berdin erabiltzen du. Beste %5,6 batek euskara erabiltzen du, baina ez gaztelania bezainbeste. Beste guztiek erdara erabiltzen dute beti edo ia beti (%87,8a dira). Hauetatik, talde txiki batek (%2,5), oso gutxitan bada ere, euskara erabiltzen du.

Erabilerari dagokionez, gaitasunaren atalean ikusi ahal izan dugun modu berean, eremu euskaldunetik mistora eta mistotik ez euskaldunera dauden tarteak oso handiak dira. Eremu euskaldunean euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak %50,7a dira, Sakontze egitasmoa

eremu mistoan %3,2 dira eta ez euskaldunean %0,2a. Euskara erabili bai baina erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak ere badira: eremu euskaldunean %11,9a da multzo hau, %10,8 mistoan eta %2,5 eremu ez euskaldunean.

Euskararen erabilerak azken bi hamarkadatan izan duen bilakaerari begirada bat ematen badiogu, honek gora %0,6a egin duela ikusi ahal izanen dugu. 20 urtetan zehar beheranzko joera egon da, azken bost urteetan joera aldaketa gertatuta eta berriz gora eginda. Ezin da momentuz baieztatu joera horrek goranzkoa izaten jarraituko duen, egonkortuko den. Eremu euskaldunean eta eremu mistoan gora egin du euskararen erabilerak. 1991tik 2016ra bitarteko urteetan %3,9 gehiago dira euskara erdara bezainbeste erabiltzen duten herritarrak eremu euskaldunean; eremu mistoan, aldiz, %1,5 gehiago. Eremu ez euskaldunean ez da aldaketarik gertatu: bere horretan jarraitzen du erabilerak, ez atzera ez aurrera.

Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Oro har, gainera euskarari buruzko jarrera hobetzen ari da azkeneko urteetan eta horretan ere aurrera pausuak nabariak dira. Euskara sustatzearen aldeko jarrerak ere gero eta nagusiagoak dira (Aizpurua, 2013). Hala erakusten dute inkesta soziolinguistikoetan eta bestelako ikerketa batzuek euskararekiko jarrera eta interesei erreparatzen dietenean (Euskarabidea, 2013).

2. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, hizkuntza paisaia lantzeko ezinbestekoak diren hainbat atal jorratuko ditugu, baita hau aztertzerakoan daukagun edo izanen dugun ikuspegia ere. Nafarroako 18/1986 Euskararen Legearen arabeko zonifikazioa ezagutu dugu dagoeneko; hizkuntza paisaiaren inguruan egingen dugun azterketa hobe ulertu ahal izateko eta euskararen estatusaren inguruko informazioa jasotzeko ezinbestekoa da sarrera moduan ariketa hori egitea..

Hizkuntza paisaia aztertzeko, hizkuntzen arteko harremanak eta asimetriak ulertzeko eta honen inguruko irizpideak ezagutzeko, diskurtsoaren, boterearen eta ideologiaren inguruan Van Dijk-ek (2003, 2011) duen ikuspegia ezagutuko dugu.

Ondoren, hizkuntza paisaiaren inguruan dauden teoria esanguratsuenak aipatuko ditugu, eta hizkuntza ekologiaren inguruko zertzelada batzuk eman: izan ere, hizkuntza guztiak bizirauteko eta hizkuntza aniztasuna gordetzeko berme gisa ulertzen dugu hizkuntza-ekologia, baita elkarbizitzarako tresna gisa ere.

Bukatzeko, 'asimilazioa', 'integrazioa' eta 'segregazioa' terminoak ezagutu eta Nafarroako hainbat herritan euskarak espazio publiko batzuetan duen presentziaren Sakontze egitasmoa

inguruan analisiak eginen ditugu, horren arabera. Izan ere, hizkuntzen arteko harremanak nolakoak diren ikustea garrantzitsua izanen zaigu lan honetan guztian zehar.

Finean, hizkuntzen arteko harremanak eta hauek hizkuntza-paisaietan duten eragina aztertzeraz gatz lan honekin; beraz, oinarri teoriko batzuk ezarriko ditugu atal honetan.

2.1 Diskurtsoa, boterea eta ideologia.

Diskurtsoaren arabera ematen diren botere nagusikeria eta desberdintasunak aztertzen dituzte Diskurtsoaren Ikerketa Kritikoek. Van Dijkek, teoria honetan aitzindarietakoa denak (Van Dijk, 2011), ere argi esaten du zailtasun handiak ekartzen dituela analisi honek eta oso zaila dela berau aurrera eramatea. Gizartean eraikitzen diren botere harremanak diskurtsoaren oinarri semiotikoekin erlazionatzea oso zaila da, haren ustez, botere harremanak abstraktuak eta orokorrak direlako. Nola definitu eta zehaztuko ditugu hizkuntzen artean existitzen diren botere harremanak? Nola definituko dugu hizkuntzen artean dagoen botere nagusikeria? Zer da hori praktikan? Nola erabakiko dugu zein botere harreman existitzen den hizkuntzen artean? Nola finkatuko ditugu horretarako oinarriak?

Van Dijkek (2011) azpimarratzen du diskurtsoa bera interakzioa dela, komunikazio testuinguru batean gertatzen den gizartearen praktika. Analisi hau egiteko sistema desberdinak erabil daitezkeela esaten du ikerlariak. Diskurtsoaren ikerketa kritikoek gizartean egon daitezkeen arazoetara bideratzen dute beren lana, desberdintasunen edo dominazio sozialen forma desberdinetara, alegia: “pueden formularse alternativas a los discursos dominantes que coinciden con los intereses de los grupos dominados” (: 26).

Gure lanean zehar nagusiki bi hizkuntzaren arteko (gaztelania eta euskara) botere eta harremanen inguruko analisisia eginen dugu; beraz, Van Dijkek (2006, 2011) ezinbestekotzat jotzen dituen boterearen ezaugarriak aukeratu ditugu, hauek kontuan hartzeko. Autorearen esanetan, gizarte taldeen arteko harremanen perspektibatik aztertzen da boterea. Hau da, A taldeak B taldearen gaineko boterea du eta praktikara eramaten du. Gure ustez, botere harreman hauek hizkuntzei ere ezartzen ahal zaizkie.

Talde nagusi eta azpikoa egonen direla ulertzen dugu.

Lan honetan zehar Nafarroako lau herritako kaleen errotulazioan euskararen eta gaztelaniaren presentzia eta hauen arteko harremana aztertuko ditugu. 18/1986 Euskararen Legeak ezartzen duenaren arabera, hiru eremu desberdinetako –eremu euskaldun, misto eta ez-euskalduna- herrietan eginen dugu azterketa hau. Gure ustez, Graddol eta Swann (1989) ikerlariak aipatzen duten moduan, hizkuntzak gizarteak eta ideologiak eraiki ditzake, baita orden soziala mantentze aldera ere; gure kasuan, hizkuntzen arteko desberdintasunak bere horretan gorde ditzake: “language does not function simply as a mirror of society. Rather, it is strongly implicated in the construction and maintenance of social divisions and inequalities” (: 10).

Ideologiak diskurtsoetan eta, gure kasuan, hizkuntza paisaian eta hizkuntzen arteko harremanetan zein motatako islada duen aztertu beharrekoa da: “Debemos saber cómo se expresan las ideologías (¡o cómo se camuflan!) en el discurso y cómo se reproducen las ideologías en la sociedad” (Van Dijk 2003: 17). Kasu honetan ideologia elebarrak eta oligoglosikoaz ariko ginateke: lehenengoaren arabera, gizartearen aurrerapenen baldintzetako bat hizkuntza bakarra erabiltzea da; bigarrenaren kasuan, hizkuntza gutxi batzuen inposizioa ezartzen da (Moreno Cabrera, 2006).

Hortaz, gizarte boterearen analisia horrela uler dezakegu: talde batek beste baten gainean daukan kontrola, normalean ezarritako boterearen (eta boteretsuen) alde egiten dena da. Kasu honetan, hizkuntza paisaian gaztelaniaren nagusitasunaren (edo nagusikeriaren) defentsa egiteaz hitz egiten ari gara.

2.2 Hizkuntza paisaia

Hizkuntza paisaia espazio publikoetan dauden testu, kartel edo adierazpen linguistiko guztiek osatzen dutela esan dezakegu; honi lotuta, paisaian agertzen diren hizkuntzen artean dauden botere harremanen inguruko informazioa eta zantzuak eman diezazkiguke hizkuntza paisaiak berak. Hau da, hizkuntza paisaia aztertzen ari garen tokiko errealitate soziolinguistikoaren isla izan daiteke (Cenoz eta Gorter, 2006), baina ez bakarrik hori. Hizkuntza paisaia ez da itxia, dinamikoa da. Errotulazio publikoak dira, baita kalean edo eraikinetan aurkitzen ahal ditugun mota guztietako adierazpenak ere (kartelak, eskuorriak, pintadak, graffitiak...); kamisetetan idatzita dagoena ere hizkuntza paisaia da (Caldwell, 2017). Dena den, azken baieztapen honek zentzua gal lezake gure Sakontze egitasmoa

ikerketa honetan. Izan ere, guk soilik kaleen errotulazioak aztertuko ditugu, eta horrek hizkuntza paisaiaren zati esanguratsuak utziko ditu kanpo.

Hizkuntza paisaiaren inguruko ikerlan asko egin izan dira; lan honetan, garrantzitsuenak aipatzen saiatuko gara. Landry eta Bourhis-ek (1997) eman zuten, lehenengo aldiz, hizkuntza paisaiaren definizioa, baita honen funtzioen inguruko zehaztapenak eman ere:

“The language of public road signs, advertising billboards, street names, place names, commercial shop signs, and public signs on government buildings combines to form the Linguistic Landscape of a given territory, region, or urban agglomeration. (...) Can serve two basic functions: an informational function and a symbolic function” (Landry & Bourhis 1997: 25).

Hau da, espazio publikoan agertzen den edozein seinale edo testu izan daiteke hizkuntza paisaia (Muñoz Carrobles, 2010); aurretik aipatu dugun bezala, kasu honetan lau herri hauetako kaleen errotulazioa hartuko dugu analisirako esparru: Artaxoa (eremu ez-euskalduna), Artazu (eremu ez-euskaldunetik mistora pasa zen 2017ko ekainaren 1ean), Gares (eremu mistoa) eta Elizondo (eremu euskalduna).

Ben-Rafael-en (2009) arabera, “the notion of Linguistic Landscape refers to linguistic objects that mark the public space, outside private homes” (: 40). Espazio publikoak, beraz, jabetza pribatukoa ez den gizartearen edo komunitatearen espazio guztiak hartzen ditu (kaleak, parkeak edo instituzio publikoak). Horrela, guk aztertuko dugun hizkuntza paisaia (kaleen errotulazioak) publikoa da eta herri bakoitzaren Udalaren menpe dago.

Hizkuntza batek seinale publikoetan duen ausentziak edo presentziak hiztuna marko elebidun edo eleanitz batean hizkuntza-komunitate baten barnean nola sentitzen den baldintza dezake (Bourhis, 1992); honi hizkuntza paisaiaren funtzio sinboliko deritzogu. Informazio funtzioak, aldiz, hizkuntza komunitate baten lurralde geografikoa islatzen du, hizkuntzaren lurraldea isla dezake (Landry & Bourhis, 1997).

Cenoz eta Gorter-ek (2006) esaten dute eleaniztasuna errealitate bat dela gaur egun Europan, eta “estatu bat, hizkuntza bat” ideia guztiz zaharkitua dagoela. Gainera, paisaian duten presentziak hizkuntzez egiten dugun balorazioan ondorioak ditu. Cenoz eta Gorterren arabera (2006), hizkuntzen inguruko jarrerak indartzen ahal ditu paisaiak, Sakontze egitasmoa

eta hauen ikasketarako lagungarri ere izan daiteke. Hau da, hizkuntzen presentzia haien botere eta estatusaren isla da. Autore hauen arabera, hizkuntza paisaia ikertzea aniztasuna ezagutzeko neurri egokia izan daiteke; hala ere, gure ikerketa kaleen errotulazioetara mugatuko denez, uste dugu herri hauetan eman daitekeen hizkuntza aniztasuna ez dugula ezagutuko.

Ikerlari askoren arabera, hizkuntza paisaiak gizartearen eta eleaniztasunaren arteko harremana aztertzen du (Huebner, 2009). Analisi honek erakusten digu hizkuntzen arteko hierarkiak hizkuntza paisaiaren bidez ere egin daitezkeela. Hizkuntza paisaiaren analisia lan zaila da, Spolsky (2009) eta beste ikerlari askoren ustez; arestian aipatu bezala, ikerketarako aukeratu dugun espazioa hain zehatza izanik, ikerketarako eta analisirako irizpideak zehatzagoak eta aztertzeke sinpleagoak izanen dira, errotulu mota bakarra hartuko baitugu aintzat ikerketa osoan zehar.

Diskurtsoaz eta ideologiaz hitz egin dugu aurretik; beste ikerlari askok egin izan dute harreman hau. Txekiar Errepublikan eta Eslovakian egindako hizkuntza paisaiaren inguruko ikerketa batean, Sloboda-k (2009) ere honen eta ideologiaren arteko harremana aipatzen du; hizkuntza paisaia eta ideologia ezin dira bereizi, haren ustez. Beste askok erlazionatzen dute ideologia hizkuntzarekin, gizartearen pertzepzioekin edo hizkuntza-paisaiarekin: Graddol eta Swann (1989), Bastardas (2005), Moreno Cabrera (2006), Lanza eta Woldemariam (2009), Van Dijk (2011), Martín Rojo (2013), Rodríguez Barcía eta Ramallo (2015). Lanza eta Woldemariam-ek dioten bezala, “language ideologies serve to rationalize existing social structures and dominant linguistic practices, particularly through their institutionalization in official language policy” (2009: 192).

Hizkuntza paisaia aldaketa politiko eta sozialaren isla izan daiteke; hizkuntza-merkatua eraldatzea hizkuntza-ideologiak zalantzan jartzea da. Horren isla izan daitezke, adibidez, azken urteetan hainbat herrialdetan aurrera eraman diren komunikazio-praktikak, plazen okupazioaren eta gizarte-protesten bidez. Martín Rojoren arabera (2013), ideologia elebakarrak auzitan jartzen dira praktika hauei esker:

“Se desafían las ideologías diglósicas hegemónicas, que atribuyen unos valores de cultura y de progreso a una lengua, frente a otras consideradas eminentemente orales, familiares, de retroceso social, etc. (...) se trata de lenguas patrimoniales no oficiales, que

Sakontze egitasmoa

al escribirse e irrumpir en ámbitos de donde estaban excluidas vuelven a ingresar en otra posición en el orden sociolingüístico local”. (: 291).

Ideia hau indartzeko, Rodriguez Barcía eta Ramallok (2015) zentzu honetan egiten duten aportazioa esanguratsua da; haiek esaten dutenez, egiten ditugun hizkuntza-hautuak ideologiaren gainetik egiten dira, eta hartzailerak eta helburu komunikatiboak aipatzen dituzte:

“Las lenguas no solo revelarán la ideología privativa de los “escritores”, sino que serán parte fundamental de las estrategias de comunicación política y de la comunicación del cambio social”. (...) en la elección de la lengua no prestigiada socialmente, estará también la reivindicación” (: 133).

Muñoz Carroblesek (2010) hizkuntza-plangintzak duen berebiziko garrantzia azpimarratzen du, eta berau tentu handiz egin behar dela, hizkuntzen arteko harremanek eta bisibilizazioak (edo ez bisibilizazioak) eragina izan dezaketelakoan. Moreno Cabreraren (2010) iritzia bestelakoa da: “es absolutamente fundamental que las instituciones responsables planifiquen una política lingüística que tenga como objetivo acabar con el menosprecio hacia sus lenguas de muchas comunidades” (: 221). Ideia hau oinarri hartuta, datuak hartu, aztertu eta eginen dugu gure azterketa. Izan ere, kaleen errotulazioak herrietako udalei dagokien hizkuntza pasaia dira, eta hizkuntza politikekin dute zerikusi handia.

Hizkuntza paisaiaren analisiarekin hasteko, argi izan behar dugu hainbat elementu desberdin aurki ditzakegula. Ben-Rafael-en (2006) arabera, bi mezu mota egon daitezke:

- “Top-down”: instituzio publikoak dira igorleak, eta politika publiko eta ofizialak egiten dituzte. Gure kasuan, aurkituko ditugun mezu guztiak edo ia guztiak mota honetakoak izanen dira.
- “Bottom-up”: seinale eta testu hauetan, igorlea pertsona bat, elkarte edo eragile bat izan daitezke, autonomiaz mezuak idazten dituztenak. Ez dute politika publikoen arabera egiten, eta ez dira ofizialak. Gure kasuan mezu ofizialetan erreparatuko dugu gure analisia; dena den, gerta daiteke kaleen errotulazioan bertan beste mezu batzuk agertzea gainean, zerbait nahita ezabatua egotea etab. Kasu posible horietan bakarrik eginen dugu “bottom-

up” motatako mezuen analisia.

Azkenik, kaleko errotulazioetan hizkuntzen arteko harremanak aztertuko ditugu, eta harreman horietan mikrobiolentziarik ote dagoen. Izan ere, errealitate anitzak aurki ditzakegu hizkuntzen arteko mikrobiolentzia horietan: hizkuntza baten edo batzuen inbisibilizazioa, (des)legitimazioa edo gutxiespena (hainbat mekanismo egon daitezke horretarako: hizkuntza baten edo batzuen falta, hizkuntza bati lehentasuna ematea...), esate baterako. Biolentzia hauek ez dira erraz identifikatzen, askotan ikusezinak dira eta ez ditugu sumatzen, naturalizazio prozesu baten ondorioa direlako (Asociación de Estudios sobre Discurso y Sociedad, 2015). Horren araberako analisiak egiten saiatuko gara.

2.3 Hizkuntza ekologia

Hizkuntza ekologia definitzea zaila izan daiteke eta honen inguruko zenbat ikuspegi dago. Arlo honetan esanguratsuak diren ikerlari batzuen inguruko ibilbide txiki bat egingen dugu hemen, eta hizkuntza ekologiaren inguruan ematen dituzten definizioak ezagutuko ditugu. Haugen-en (1972) lanetan koka dezakegu teoria honen jatorria.

Bastardas-en (2005) ustez, ekologiaren eta hizkuntza-jasangarritasunaren helburua da hizkuntzen arteko desberdintasunekin amaitzea, eta hizkuntzen arteko mailaketa bultzatzen duten jarrera, uste eta ideologiekin bukatzea. Hizkuntza ekologiak hizkuntzen arteko berdintasuna sustatzeaz gain, hauen biziraupena bermatzen duten hizkuntza komunitatearen duintasuna ere defendatzen du.

Les llengües del món: ecolingüística lanean, Junyent-ek (2006) hizkuntza aniztasuna ekosistema propioetan kokatzen du, eta ikuspegi globala ere aipatzen du. Hizkuntza ekologiak gure planetan hizkuntzen jasangarritasunaren alde egiten du, eta hauen aniztasun eta garapena sustatzen ditu. Bastardasek (2005) galdera hau jartzen digu mahai gainean: nola lan egingen dugu hizkuntzen biziraupenaren alde, pertsonak elebiduntasunerantz abiatzen ari bagara? Aldaketa bat proposatzen du ikerlariak: hizkuntza guztien biziraupena bermatuko duen ekosistema berri bat berreraikitzea; bere ustez, bide hau egin ahal izateko ezinbestekoa da hizkuntzen arteko bizikidetza eredu berriak diseinatzea. Honetaz gain, hizkuntza-aniztasuna errealitate bilakatu ahal izateko bidean lan egitea eta horren alde eragitea ekintza guztiz politikoa dela aldarrikatzen du.

Bastardasek (2000) azpimarratu egiten du estatuek eta egiten dituzten hizkuntza-Sakontze egitasmoa

politikek guztiz baldintzatuko dutela hizkuntzen biziraupena edo desagertpena. Ikerlariak esaten duenaren arabera, etorkizunean dugun hurrengo erronka honakoa da: nola egin komunikazio orokorreko hizkuntzen (ingelesa, esate baterako) gehiegizko erabilera gutxitu ahal izateko? Nola egin bide horretan hizkuntza gutxituen biziraupena bermatzeko eta jasangarritasun linguistikoa defendatzeko? Ingelesa bezalako hizkuntzen erabilera-nagusitasuna dagoeneko errealitate bat da gaur egun.

Baina, zein dira Lurrean hizkuntzen arteko bizikidetzara heltzeko gako nagusiak? Bastardasek (2000) esaten du bizikidetzara horren oinarria hizkuntzen funtzio banaketa egoki bat egitean dagoela, eta azpimarratu egiten du guztiak babestu behar direla, bereziki hizkuntza gutxituak.

Ikerlari honek (2005) proposatzen duen alternatiba hizkuntza-jasangarritasuna da. Bere arabera, “vol ser una utopia mobilitzadora que es presenta com una nova manera de jerarquitzar els valors, confrontada al conservadurisme polític-ideològic (...) s'oposa a les societats expansives i dominadores” (: 3). Ez du soilik hizkuntza-jasangarritasunaz hitz egiten; planteamendu global gisa ulertzen du, eta ingurumen krisiarekin lotzen du. Bere ustez, bioaniztasuna gordetzeko bidea ere bada hau. Bi errealitate posible aipatzen ditu Bastardasek (2005): alde batetik, hizkuntza handien hedapen osoa eta, beste alde batetik, hizkuntza aniztasuna eta gizakiaren identitate kolektiboak bermatzea eta garatzea. Azken hau defenditzen du hizkuntza ekologiak. Hizkuntzen arteko berdintasuna aipatuko dugu sakonago gero, Moreno Cabreraren ikuspegia kontuan hartuz.

Hizkuntza gutxi batzuek bakarrik duten ofizialtasuna eta izaera publikoa aipatzen ditu, halaber, Bastardasek (2005), baita komunikaziorako hizkuntza handi horien zabalpena ere. Bi errealitate hauek dakarte hizkuntza nagusien hedapena guztiz kontrolik gabea eta neurritz kanpoko izatea. Horrela, botere eta estatusik ez duten hizkuntza gutxituek bizirauteko aukera gutxiago dituzte. Gure lanean zehar gehiago sakondu badugu ere, estatus eta ofizialtasunaz ari garela, Nafarroan Vascuence Legeak ezarri zuen zonifikazio linguistikoa aipatu beharra dugu: lurraldea hiru zatitan banatu (eremu ez-euskalduna, mistoa eta euskalduna) eta eremu euskaldunean da bakarrik euskara ofiziala.

Bastardasek (2005) argi esaten du jasangarritasunaren alde lan egin behar dela; Sakontze egitasmoa

horretarako zenbait neurri proposatzen ditu, esate baterako: egoera gutxituan dauden hizkuntzei funtzio eraginkor eta eksklusiboak ematea, hizkuntza aniztasunaren eta jasangarritasunaren aldeko sentibilizazioa martxan jartzea gizartean, talde linguistikoek haiei buruz duten irudia duintzea edo hizkuntza gutxituei espazio komunikatibo propioak eskaintzea. Zentzu honetan, etorkizunean gerta daitekeen egoera bat planteatzen du Moreno Cabrerak (2000):

“La ocupación de nuevos espacios y ámbitos por parte de las lenguas minoritarias supondrá necesariamente el cese del predominio de la lengua dominante en esos espacios y los hablantes e instituciones que la promueven harán lo posible para no dejar esa posición predominante: nadie renuncia al dominio de buen grado. En estos casos hablarán de imposición y de violación de derechos” (: 225).

Hizkuntza ekologiaren teoriak esaten du hizkuntzek, komunikazio funtzioaz gain, beste funtzio batzuk ere badituztela, sinbolikoak izan daitezkeenak, edo identitateari lotutakoak. Hizkuntzen egoerak eta garapenak ulertzen saiatzen da eta analisi kritiko bat egiten du hauen inguruan. Hizkuntza-darwinismoa eta hizkuntza-liberalismoa ere aztertzen ditu (Martinez de Luna, 2011).

Ezin dugu ahaztu “normaltasun”-aren diskurtsoa ere presente dagoela, hizkuntza nagusi batzuen mesedetan eta automatikoki mespretxatu diren hizkuntzen kaltetan. Baztarrikaren (2011) iritziz, urte luzez indar eta botere handia eman izan zaie hizkuntza gutxi batzuei, eta kendu beste batzuei.

Hainbat eta hainbat autorek defendatzen duten teoria da hizkuntza ekologia, eta puntu indartsu batzuk ditu bere baitan; hasteko, ekologiaren teoria eta kontzeptua bera oso hedatua dago, erraz ulertzen da eta gizartean orokorrean onartu egiten da (Martinez de Luna, 2011). Honez gain, hizkuntza ekologia ez dago ideologia edo proiektu politiko konkritu batekin lotua eta bere helburuen erdigunea hiztunak eta hizkuntza gutxituen hiztun komunitateak dira (Baztarrika, 2011). Martinez de Lunaren (2011) ustez, hizkuntza ekologiak duen erronketako bat da hizkuntzen arteko konfrontazio-markoa alde batera uztea eta hizkuntza guztien jasangarritasuna positibotzat hartzen duen ikuspegia nagusitzea.

Bizikidetzaren paradigmarekin batera, estrategia komunitarioak beharrezkoak dira: intentsitate handikoak, hizkuntza gutxituak hegemoniko izanen diren espazioak, Sakontze egitasmoa

Bastardasek berak aipatzen duen moduan (Sarasua, 2011). Martinez de Lunak ideia bera azpimarratzen du:

“Funtzio hegemonikoak eskuratzea ezbestez negoziazio baten eskutik etorri beharko litzateke. Negoziatio horretarako, jakina, planteamendu etokietatik abiatuta eskuzabaltasun handia eskatzen du hizkuntza hegemonikoen hiztunen aldetik. Horiek dugun egoerarekin ez dute ezer galtzen. Beraz, hizkuntza baten biziraupenerako hainbat funtzio hegemoniko izan behar ditu, egoeraren arabera eztabaidatu eta zehaztu beharko direnak” (: 157).

Zentzu horretan, Baztarrikak (2011) esaten du oraingo lehentasuna eleaniztasun konstante eta demokratikoa kudeatzea dela; zaila da berariaz hizkuntza gutxituentzako espazioak egotea, baina zenbait egoeratan hizkuntza batzuk lehentasunezko izan daitezke, hauen biziraupen eta garapenaren mesedetan: “Euskarari testuinguru zehaztuz funtzio nagusiak bermatzea ez dagoela aniztasunaren kontra esplikatuko behar da (...) Jakina, irauteko euskal hiztun garenok eguneroko hizkuntza ohikotzat behar dugu euskara” (: 160).

Bastardasen (2005) iritziz, hizkuntzak aktibitateak dira, ez objektuak. Hizkuntza-barrietateak gordetzea eta mantentzea, neurri handi batean, hiztunen praktikaren araberrakoa da. Ikertzailearen arabera, globalizazioak ekarri duen ondorioetako bat honakoa da: komunikazio orokorraren eta hizkuntza-aniztasuna mantentzearen arteko ustezko kontraesana. Ezinbestekoa da azpimarratzea hizkuntza ekologia aniztasunaren aldekoa dela, eta “estatu bat, hizkuntza bat” ideiarekin apurtzea. Comellas-ek (2011) hizkuntza-ekologia hizkuntzen arteko berdintasun markotzat definitzen du: “la pequeña es tan importante como la grande”.

Moreno Cabrerak (2000) ere antzeko zentzuan hitz egiten du: hizkuntza baten ezaugarri batek ere ez du hizkuntza bat edo beste bat hobe edo okerrago egiten; hau da, dialekto edo hizkera bat ere ez dira beste batzuk baino hobeak edo okerragoak. Beraz, hizkuntzen arteko desberdintasunek ez dute arrazoi linguistikorik: desberdintasunen jatorria faktore sozial eta kulturaletatik dator. Hizkuntzek sufritzen duten hizkuntza-diskriminazioa ere aipatzen du:

“Entendemos por *discriminación lingüística* toda aquella actitud hacia las lenguas o variedades lingüísticas que se base en la idea de que éstas se pueden clasificar en tipos

y que existen diferencias entre esos tipos, que pueden justificar la concepción de que unas son superiores a otras total o parcialmente” (: 15).

Moreno Cabrerak (2006) hizkuntza aniztasunaren inguruko mitoak aipatzen ditu, eta esaten du ezagutzen ez dugunaren gaineko pertzepzio negatiboa izaten dugula. Are gehiago, Babelgo dorrearen mitoak gizakiei Jainkoak ezarritako zigorra azaltzen du; haien artean komunikatu ahal ez izateko sortu zituen Jainkoak hizkuntza desberdinak. Ikerlariak dioenez, hizkuntzak herriarenak dira, hiltunen aldatzen eta eraldatzen dituzte eta ezin da esan hizkera bat edo beste zuzena edo okerra denik. Hala ere, hizkuntzen espazioen gaira bueltatuz, Moreno Cabrerak (2000) azpimarratzen du oso garrantzitsua dela hiztun komunitate txikiek beren espazio propioak izatea: “que accedan a un espacio multicultural a través de su propia lengua y cultura” (: 222).

Hizkuntza galeraren arriskuari aurre egiteko, Moreno Cabrerak (2000) behin eta berriz esaten du hizkuntzalariek talde gutxiak defendatu behar dituztela, eta hauen kultura eta hizkuntzen alde lan egin. Hizkuntza ondarea gordetzea, hizkuntzak sustatzea (ez bakarrik hizkuntza nagusiak) eta aztertzea obligazioa da, haren ustez. Autore honek berak (2000) uste du hizkuntzen inguruko aurreiritzi, uste eta sinesmenak profesionalen artean ere zabalduta daudela: “la actividad de los lingüistas, como la de los especialistas de cualquier otro campo científico, no está exenta, por el mero hecho de ser reconocida como tal, de los mismos mitos y prejuicios que están difundidos entre el público no experto” (: 234). Hizkuntza-aniztasuna gorde ahal izateko, ezinbestekoa da jakitea hizkuntzak ekosistemak direla, eta haiek hiltzen badira sistema bera ere hiltzen dela. Bestetik, hizkuntza ekologia eta hizkuntzen heriotzaren aurkako borroka dio aniztasuna beharrezkoa dela eboluzio bat egon ahal izateko (Crystal, 2000).

Laburbilduz, hizkuntza ekologiak hizkuntza guztien arteko berdintasuna aldarrikatzen du, eta hizkuntza-jasangarritasuna beharrezkoa dela jartzen du mahai gainean. Horretarako, munduko hizkuntzen aniztasuna ez da bermatuko bakarrik profesionalen eta hiltunen errespetuaren bidez; hizkuntza gutxituei funtzio espezifikoak eta erabilerarako espazio propioak eskaini behar zaizkie. Hizkuntza paisaiarekin lotuta, ikerlan honen helburua ez bada ere, eztabaida bat ireki liteke: zein dira Nafarroan edo aztertuko ditugun herrietan hizkuntza gutxiak? Zein paper izan behar dute? Hala ere, aipatu behar dugu gure lanaren helburua, batik bat, euskara eta gaztelaniaren arteko Sakontze egitasmoa

harreman eta kontaktua aztertzea dela. Hizkuntza paisaian hizkuntza ahulak erabiltzea arriskuan dagoen espezia bat babestearekin konpara dezakegu, Lurraren bioaniztasunarekin eta biziraupenarekin lotzen badugu (Cenoz & Gorter, 2006).

Gure ustez, hizkuntza ekologiak, teoria gisa, hizkuntzen arteko desberdintasunak agerian jartzen ditu eta hauen garapen jasangarrirako tresnak ematen ditu; hizkuntza paisaian ere, honen bidez, hizkuntzen arteko berdintasunerako bidean jartzen gaitu. Horregatik guztiagatik, sakontze egitasmo honetan lan egiteko oinarritzko teoria gisa hartu dugu hizkuntza ekologia. Lan honetan, arestian aipatu moduan, euskara eta gaztelaniaren arteko harremana aztertzea izanen da helburua, jakinda hizkuntza paisaia orokorraren azterketak beste hizkuntza batzuk ekarriko zituela lan honetara; lan zabalago baterako ideiak izan daitezke.

2.4 Asimilazioa, integrazioa, segregazioa

Aipatu ditugun herrietako espazioetan eginen dugun hizkuntza paisaiaren analisia egiteko, garrantzitsua ikusten dugu hizkuntzen artean zein harreman dagoen aztertzea. Badakigu espazio murrizak izanda, zaila izanen dela zalantzarik gabeko ondoriorik izatea, baina hizkuntzen arteko zein harreman egon daitezkeen jakitea ezinbestekoa da hauen analisia egin ahal izateko. Gure hipotesiaren arabera, gaztelania izanen da hizkuntza nagusi, baina hori baieztatu ahal izateko, hizkuntzen artean sortzen diren harremanak zein diren ezagutu behar dugu. Berryren (1989) lanean oinarrituko gara horretarako; hark proposatu zituen “asimilazio”, “integrazio” eta “segregazio” terminoak hizkuntzen arteko harremanak sailkatzeko. Zer aurkituko dugu: asimilazioa, integrazioa ala segregazioa?

Asimilazioa gertatzen da identitate kultural bat (kasu honetan, hizkuntza) beste handiago batek (nagusi dena, zapaltzailea) xurgatzen duenean: “Assimilation option is defined, namely, relinquishing one's cultural identity and moving into the larger society. This can take place by way of absorption of a non-dominant group into an established dominant group” (Berry et al 1989: 187). Integrazioak, aldiz, hizkuntza guztiek irauteko apustua egiten du; talde guztien arteko harremanak sustatzen ditu, inor kaltetua atara gabe: “in this case there is a large number of distinguishable ethnic groups, all co-operating within a larger social system” (Berry et al 1989: 188). Segregazioak taldeak bereiziko lituzke, haien artean ez lukete harremanik izanen eta ez lukete elkarlanik. Sakontze egitasmoa

eginen gizartean bertan. Ez legoke inolako loturarik haien artean, ezta kontakturik ere.

Hizkuntzei dagokienez, Azurmendi eta Bourhisek (1998) aipatzen dutenaren arabera, Estatu Espainolean aurrera eraman den hizkuntza-politika asimilatzailea izan da oro har. Herrietako eta instituzio publikoen hizkuntza-politikak integratzaileak izatea izanen litzateke helburua, eta hizkuntza aniztasunari erantzunen lieketeenak. Hizkuntzen arteko integrazioa izan daiteke kolean eta gizartean dagoen aniztasunari erantzuteko modu bat gehiago. Hezkuntza espazioetan ere hizkuntza-aniztasunari horrela erantzutea integratzailea da (Wokus, 2008).

3. METODOLOGIA

Ikerketa aurrera eramateko, hizkuntza pasaia aztertu ahal izateko metodologia eraman dugu aurrera. Gure lana giza jarduera baten azterketa deskriptiboa den heinean, sakontze egitasmo hau etnografikoa dela esan dezakegu. Izan ere, herri herri eta eremuz eremu jarraitzen diren hizkuntza politiken isla izan daiteke hizkuntza paisaia, eta errotulazio publikoak horri erantzuten ahal dio. Etnografia garaikidearen ezaugarri garrantzitsuenetako bat da mota askotako datu anitzak jasotzen direla ikerketetan: “estas técnicas van desde la observación participante hasta las entrevistas, la elaboración de cuestionarios, las historias de vida o el análisis de contenidos de documentos primarios como diarios, fotografías o informes de la institución”. (Serra 2004: 167)¹.

Gure kasuan, ikerketa aurrera eraman ahal izateko, bi alor garrantzitsu izan ditugu aztergai lanean zehar: alde batetik, kaleetako errotulazioak eta horren bidez hizkuntza paisaiaren azterketa egiteko egin dugun argazki bilketa. Herrietan egin dugun obserbazio lana eta hizkuntza paisaiaren deskribapen txiki bat hartzen duen kaleetako errotulazioak jaso ditugu. Beste alde batetik, ezinbestekoa iruditu zaigu lanaren alor praktikoa hau egiteko herrien errealitatea ezagutzea eta Euskararen Legeak herri hauetan zein eragin izan duen jakitea, baita jarraitzen diren (edo jarraitzen ez diren) hizkuntza politiken berri izatea. Hau da, errotulazioa eta paisaiaren ikuskatze lanarekin ezinbestean lotuta joan da herrietako hizkuntza politika, legearen bilakaera, horrek izan duen edo dezakeen eragina... Marko teorikoan aipatutako alor horrek eta Nafarroan egin diren inkesta soziolinguistikoak lanerako tresna ere izan dira: euskararen ezagutza maila, erabilera,

¹Teknika hauek mota askotakoak izan daitezke: ikuskatzea, elkarrizketak, inkestak, bitzita istorioak edo bestelako testu eta dokumentuak, hala nola, egunerokoak, argazkiak edo instituzioaren txostenak. Sakontze egitasmoa

euskararen aldeko eta kontrako jarrerak... Adibidez, 2017an herri batzuk eremu ez euskaldunetik mistora pasatzeko eskaera egin zuten; horrek, udalbatzen euskararekiko atxikimendua eta aldeko jarrera islatzen du, eta datu gehiago ematen ditu euskararekiko jarreraren inguruan. Gainera, datuak hobeki aztertu ahal izateko, aztergai ditugun herrietako pertsona batzuekin izan dugu kontaktua, zalantzak edo argitzeko zeuden aspektu batzuren kontrasterako.

3.1 Datu bilketa

Datuen bilketa honako herri hauetan egin dugu: Artaxoa (eremu ez-euskalduna), Artazu (eremu ez-euskaldunetik mistora pasa zen 2017ko ekainaren 1ean), Gares (eremu mistoa) eta Elizondo (eremu euskalduna). Guztira 113 argazki egin ditugu lanerako datu aski jaso ahal izateko.

Herri hauetako kaleetako errotulazioa jaso dugu eta bildu dugu. Hizkuntza paisaia bere osotasunean aintzat hartu ahal izateko, denbora eta aztergai gehiago beharko genituzke. Gure helburua hizkuntza politika publikoen azterketa egitea denez gero, kalean ezarrita dauden seinale publikoen jasoketa egin dugu soilik. Horrela

Errotulazioaren inguruko azterketa egiterako orduan, kontuan hartu ditugun datuak izango dira honako hauek: hizkuntza kopurua, hizkuntzei ematen zaien tratamendua, gainidatzita ote dauden, lekua, helburua, gutxi gora behera zein garaitan jarria izan den errotulazioa...

Datu bilketa 2018ko apirila eta maiatzeko hilabeteetan zehar egingo izan da. Bilketa hau, arestian aipatu dugun moduan, argazkiez haratago egin dugu: kaleetako errotulazioak aztertu ditugu, beste bide-seinale batzuen jasoketa egin dugu, euskararekiko jarrerak eta atxikimenduak jasotzen dituzten datu-bilketak jaso ditugu, herrietako hizkuntza politiken inguruko berriak bildu ditugu eta jakin beharrekoak diren bestelako datuak hartu ditugu herri hauetako pertsona batzuren bidez.

3.2 Herriak

3.2.1 Artaxoa

Sakontze egitasmoa

Artaxoa Nafarroako erdialdean kokatuta dago eta Erriberriko merindadekoa da. Iruñetik 30 bat kilometrora kokatuta dago; Tafallatik, aldiz, 10 kilometrora eta Garestik 11 kilometrora. 2014ko datuen arabera, herri honek 1697 biztanle ditu Artaxoak.

Euskararen Foru Legearen arabera, Artaxoa eremu ez euskaldunean kokatuta dagoen udalerrria da; horrela, hizkuntza ofizial bakarra gaztelania da. Euskaldunen inguruko datu gehiago nahi baditugu, 2001eko erroldaren arabera, Artaxoako herritarren %1,46k zekien euskaraz hitz egiten.

Aipatzekoa da azken hamarkadan euskararekiko herritar batzuek egindako lana. Izan ere, 2009an, Artaxoa, Mendigorria eta Larragako guraso talde batek Biderra taldea osatu zuen, hiru herri hauetako umeek hezkuntza publikoan euskaraz ikasi ahal izateko beharrezkoak diren neurri guztiak lortu eta aldarrikatu nahiean. Euskararen aldeko jarreretan aurrerapausuak eman badira ere, Udalak Izarbeibarko Mankomunitateak eskainitako euskara zerbitzua erabiltzeari uko egin zion 2017. urtean.

3.2.2 *Artazu*

Artazu Nafarroako Erdialdean dago kokatuta, Mañeruibar deitutako haranean. Gares, Mañeru eta Girgillaorekin egiten du muga eta ehun bat biztanle ditu. Haur eta nerabe gehienak D ereduan matrikulatzen dira eskolan. Eremu ez euskaldunean hogeita hamar urtez kokatuta egon ondotik, eremu mistora pasatzeko eskaera egin zuen 2017an Artazuko Udalak. 2016ko udaz geroztik Izarbeibarko Mankomunitateak eskaintzen dion euskara zerbitzua erabiltzen du Artazuko Udalak.

3.2.3 *Elizondo*

Baztan bailarako herri handiena da Elizondo. Baztan osatzen duten 15 herrietatik handiena, Udala hartzen duena. 2010eko erroldaren arabera, urte hartan herriak 3543 biztanle zituen. Eremu euskaldunekoa da, eta UEMA Mankomunitatearen parte (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea).

3.2.4 *Gares*

Sakontze egitasmoa

Gares Izarbeibarrean kokatuta dagoen herria da. Mugetan honako herriak ditu: Mañeru, Artazu eta Girgillao mendebaldean, Mendigorria hegoaldean, Obanos eta Legarda ekialdean eta Belaskoain, Arraiza eta Erreniega iparraldean. 2012ko erroldak esaten duenaren arabera, 2835 biztanleko herria da Gares. Eremu mistoaren parte da Euskararen Legea sortu zenetik, eta hogeita bost urte baino gehiago ditu udalaren Euskara Zerbitzuak. D eredua da nagusi eskolatzean.

3.3 Hizkuntza paisaiaren azterketa

Aipatua ditugun herrien hizkuntza paisaia ofiziala izan dugu ikerketan zehar aztergai nagusi. Hizkuntza paisaia ofizialaz mintzatzen gara; izan ere, igorlea udala edo beste edozein instituzio publiko diren errotulazioa eta seinalizazioa izan dugu kontuan, bakarrik.

Hizkuntza paisaiaren azterketa osoa egin ahal izateak ikerketa sakonago eta orokorrago bat eskatzen du: paisaiaren eboluzioa denboran zehar, herrietako leku publikoetan idatzita dauden elementu guztiak jasotzea beren ñabardura guztiekin (izaerari lotuta, funtzioari lotuta, intentzionalitateari lotuta...), herriaren errealitate soziolinguistikoaren azterketa sakona eta beharrezkoak edo interesgarriak izan daitezkeen beste datu batzuk, esate baterako, herrian hitz egiten den hizkuntza kopurua, horien erabilera eta hizkuntzekiko udalak zein politika daramatzan aurrera, ea ordenantzarik ote duen...

Lan honetan aztertu nahi duguna da batik bat udalek zein postura, jarrera adierazten dituzten euskara eta gaztelaniarekiko (bereziki euskararekiko) eta nola islatzen den hori lau herri hauetako hizkuntza paisaian. Hizkuntza pasaia herrietako egoera soziolinguistikoaren berri eman diezaguke? Edo hizkuntza politiken isla besterik ez da?

Hizkuntza paisaiak hizkuntza batez edo gehiagoz dugun pertzepzioa islatu, aldatu edo eraldatzeko ahalmena izan dezake. Alde horretatik, lan honetan bilduko ditugun datuak hartu eta hauen emaitzek udalei laguntza bat eman ahal dieteelakoan gaude, bai honen Sakontze egitasmoa

errebisioa egiteko, bai errealitatea datutan nolakoa den jakiteko, bai hurrengo pausu posibleak definitze aldera.

Hizkuntza paisaia modu desberdinetara interpreta daiteke, marko teorikoaren atalean dagoeneko aipatu dugun moduan. Nola dakigu errotulu edo seinale elebidunak interpretatzen? Zer da idatzitako errotulu bakoitzak duena? Zein arau jarrai ditzakegu hau interpretatzeko? Zein instrukzio erabiliko ditugu?

Esate baterako, hizkuntzen artean zein harreman dagoen aztertu beharko dugu datuak eskuan. Autore batzuek gure galdera batzuei erantzun ahal diete: “the preferred code is on the top, on the left, or in the center and the marginalized code is on the bottom, on the right, or on the margins” (Scollon & Scollon 2003: 120). Beraz, espazialki hizkuntzek zein posizio hartzen duten ere garrantzitsua da eta badu bere esanahi propioa. Posizio honek hizkuntzen arteko harremanen inguruko informaziorik ematen ez digunean, letraren tamaina hartu behar dugu eta hartuko dugu kontuan. Letra handiagoak edo handienak direnak hizkuntza nagusiaren edo dominantearen posiziotzat hartuko ditugu, horrela ulertuko ditugu (Malinowski, 2008: 109). Honez gain, hizkuntza paisaian ematen diren kode nagusi eta menpekoen arteko harremanak horrela ulertuko ditugu: “*términos de relaciones de poder entre la lengua dominante y la no dominante (...) el atractivo y la influencia esperada en el cliente gobiernan las elecciones en el paisaje lingüístico*” (Ben-Rafael et al 2006: 10)².

Hizkuntza paisaian aurkitzen dugun testu ororen atzean egon daitekeen autore edo igorlearen erreparatzen baldin badiogu, honakoak hartu behar dira kontuan: “espresio elebidunetan, kode linguistiko batek beste baten gainean daukan nagusitasuna, eta ofizialki idatziak diren testuen (“top-down”) eta igorle pribatua dutenen (“bottom-up”) arteko bereizketa³ (Mainowski 2008: 112). Hau da, “top-down” gisa ezagutzen diren mezuetan, igorlea entitate publiko bat da, testu ofizialak dira; “bottom-up” deitzen ditugunak, aldiz, izaera ez ofizialekoak dira, entitate publikoek idatzi gabeak.

²“Hizkuntza nagusiaren eta menpekoaren arteko botere harremanean ulertu behar dira (...) hizkuntza paisaian hartzaileak zein paper hartuko duen hartzen da batez ere kontuan”. Guk geuk egindako itzulpena.

³Ingelesezkotik testu originaletik zuzenean itzuli dugun testua.
Sakontze egitasmoa

Aipatu dugu dagoeneko azken hauek (bottom-up motatako mezuak) ez ditugula aztergai izanen lan honetan zehar, baina hizkuntza paisaian adibide gutxi batzuk hartu ditugu aintzat, mezu edo testu ofizialekin nola edo halako lotura izan dutelako. Gainera, baimenik gabe egiten diren eta hizkuntza paisaiaren parte diren testuak ere ageri ahal zaizkigu. Pintadak dira hauek, eta emaitzetan ikusiko dugun bezala, zerbait aztertuko dugu gure lanean. Rodriguez Barcia eta Ramallok horrela definitzen dituzte pintadak (2015): “toda manifestación verbal o icónico-verbal dispuesta sobre ciertas superficies, generalmente urbanas (con mensajes mayoritariamente reivindicativos y de contenido político-social”⁴ (: 134). Pintaden ezaugarri nagusiak, autore hauen arabera, hauek lirateke (:135):

- Baimenik gabeak (ilegalak), (...) euskarri komunikatiboak ez diren espazioetan eginak.
- Publikoak (espazio publikoan eginak).
- Normalean aldarrikatzaileak.
- Identitarioak: askotan posizio komunak edo talde batenak ordezkatzeko dituzte; beste batzuetan identitate kolektiboak hartzen dituzte aintzat.
- Gutxiengo aktiboen inizatibaz eginak.

Pintadek, autore batzuen arabera, “hizkuntza erabiltzen dute eduki semantiko konkretu batzuk transmititu ahal izateko: informazioa helarazten dute, baina garrantzi handia eta berezia du hartzailearengan zein eragin duen, ‘edukien mezua’ gisa zagutzen duguna erabiltzen dute” (Tauste eta Reyes Sánchez, 1996).

Hizkuntza paisaia leku bakoitzean bizi den errealitatea linguistikoaren beste proba bat gehiago da: bai egonkorra bada, bai hizkuntza aniztasuna aintzat hartzen duelako, bai hizkuntzen arteko kontaktua aintzat hartzen duelako... hori dela eta, leku bateko hizkuntza paisaiaren gaineko erabakiak hartu eta horren arabera ekimen edo ekintza desberdinak planteatzea (kasu honetan, herriez eta errotulazio publikoaz ari gara) oso garrantzistua da, baina aurrera eramaten diren ekimenak beti kontu handiz hartu behar dira (Muñoz Carrobles, 2010).

⁴“Edozein mezu berbal edo berbal eta irudizko, normalean hirietan ematen dena (gehienetan mezu hauek aldarrikapenak jasotzen dituzte eta eduki politiko eta soziala daukate)”. Guk geuk egindako itzulpena.
Sakontze egitasmoa

Herrien hizkuntza paisaiaren analisia egin ahal izateko, gure irudien kodifikazioa egin ahal izateko gida moduan hartu ditugu aldagai diferente batzuk. Horrela, irudien azterketa sistematikoa egin dugu, eta beste ñabardura txiki batzuk aldagai hauetatik aparte ere hartu ditugu:

1. Hizkuntzak (euskara, gaztelania, beste batzuk...).
2. Mota (elebakarra, elebiduna, eleanitza).
3. Mikrobiolentziarik edo hizkuntzen arteko nabarmentasunik ote dagoen (lehentasuna ematen zaio gaztelaniari, ez da euskara ageri, ez dago mikrobiolentziarik...).
4. Euskarria (kale errotulazioa, bestelako seinalizazioa...).
5. Helburua (informazioa, aldarrikapena, publizitatea, akusatorioa, zehaztu gabea).
6. Izaera (ofiziala, ez ofiziala, pribatua, zehaztu gabea...).

Bukatzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea hizkuntza paisaiaren inguruko azterketa hau egitean izan dugun ikuspuntua, eta lan osoan zehar mantendu nahi izan duguna, ondorioetan ere azalduko dugun bezala: aniztasunaren defentsaren ikuspuntutik egin dugu datu bilketa hau, eta egin dugu hizkuntza paisaiaren azterketa bera ere bai. Hizkuntzen artean tokian toki zein harreman dauden, zein hizkuntza politika mota bultzatzen den, denboran eraginik ote duen eta berritasunak ote dituen edo eboluziorik ez duen... hori guztia aztertu nahiko genuke, hizkuntza politikek hizkuntza paisaiarekin duten lotura mahai gainean jartzeko eta, batez ere, aurrera begira lan hau tresna erabilgarria izan daitekeelakoan. Beste ekimen luzeago eta zabalagoen abiapuntu izan daiteke hemen erabilitako metodologia eta bilduko ditugun datu guztiak.

4. EMAITZAK

4.1 Emaiza orokorrak

Arestian aipatu ditugun aldagaiak kontuan hartuta, emaitzak aztertzeari ekingo diogu. Hasteko eta behin, aztergai izango ditugun argazkietako hizkuntzak zein diren aztertuko dugu. Jaso ditugun irudi guztietatik, taulan ikusten ahal den moduan, hogeita hiru euskarazko adierazpenak izan dira, berrogeita hamar gaztelaniazkoak eta hogeita hemeretzi euskara eta gaztelaniaz idatziak. Beste hizkuntza edo konbinazioa duen kasu bakarra aurkitu dugu ehun eta hamairu irudi hauen artean.


Portzentaiez mintzatu behar bagara, horrela adierazten dituzte emaitzak zenbakiak: %20,35 da euskaraz dagoena; %44a, aldiz, gaztelaniaz aurki dezakeguna; euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dauden adierazpideei dagokienez, %34,5a dira hauek; azkenik, ez euskaraz ez gaztelaniaz ez dagoen irudiak %0,8a hartzen du.



HIZKUNTZAK			
EUSKARA	GAZTELANIA	EUSKARA ETA GAZTELANIA	BESTERIK

Sakontze egitasmoa

23	50	39	1
----	----	----	---




Hizkuntzei dagokienez, gainera, aztertutako testuak elebakarrak, elebidunak edo eleanitzak diren aztertuko dugu. Izan ere, hautatu ditugun testuetatik hirurogeita hamairu elebakarrak izan dira (euskaraz edo gaztelaniaz soilik idatziak), hogeita hemeretzi elebidunak (euskara eta gaztelaniaz idatziak) eta bakar bat eleanitza izan da.

Hori dela eta, horrelakoak dira emaitzak: idatzitako testuen %64 elebakarra da, %34 elebiduna eta %0,8 da eleanitza.

Beraz, testuetako gehienak hizkuntza bakarrean idatziak dira; gerora ikusiko dugu elebarkatasun horrek biolentzia eragiten dion beste hizkuntzaren bati edo ez. Izan ere, erabiltzen den hizkuntzaren arabera eta beste batzuei ematen zaien tratamenduaren arabera mikrobiolentzia horiek existitu daitezke edo ez.

MOTA		
ELEBAKAR	ELEBIDUN	ELEANITZ
73	39	1



Hizkuntzen artean ere existitzen ahal diren eta mikrobiolentzia deitu diegun horiei dagokienez, esateko hainbat kontu eta informazio ematen dizkigute testuek. Mikrobiolentziez ari garenean, hizkuntzen artean hizkuntza paisaian ageri diren batzuk aukeratu ditugu, eta horien arabera egin dugu sailkapena.

Horrela sailkatu ditugu: errotulu elebidunetan lehentasuna (tamaina, kokapena, euskara baino gehiago azpimarratzea...) gaztelaniari ematea mikrobiolentziazat hartu dugu; kartel, testu edo errotuluan euskararik ez baldin badugu aurkitu, hori ere mikrobiolentzia gisa ulertu dugu. Izan ere, hizkuntza gutxitua den aldetik, tratamendu berezia beharko lukeela aintzat hartzen dugu, eta ez agertzea mikrobiolentzia izan daitekeela, hizkuntza isilarazia baitago kasu hauetan. Kasu gutxi batzuetan ez dugu zehaztu mikrobiolentziarik dagoen, modu argi batean ikusi ez dugulako eta honek daukan erlatibitatea ulertzen dugulako.


Sakontze egitasmoa

Datuek honako hau esaten dute: alde batetik, gaztelaniari lehentasuna hamazazpi kasutan eman zaio; beste alde batetik, euskararik ez egotea berrogeita hamar testutan ikusi ahal izan dugu. Biolentziarik ikusi ez dugun kasuak berrogeita hiru izan dira; hiru kasutan, ezin izan dugu zehaztu mikrobiolentziarik zegoen edo ez.

Beraz, lehentasuna gaztelaniari kasuen %15ean eman zaio; euskararik ez da ageri hizkuntza paisaitik jaso ditugun adierazpenen %44an; mikrobiolentziarik gabeko kasuak %38 izan dira; zehaztu gabeak, aldiz, %2,6.




MIKROBIOLENTZIA			
LEHENTASUNA GAZTELANIARI	EUSKARARIK EZ	EZ	ZEHAZTU GABE
17	50	43	3



Euskarriari dagokionez, aztertu ditugun testuen gehiengoa kaleko errotulazioak izan dira (guztira hirurogeita bat), baina baita beste motatako seinalizazioak ere (berrogeita zortzi izan dira osotara): eraikin publikoen noranzkoa adierazteko seinalizazioa, herrietakoa, iragarkiak jartzeko testuak... Beste motatako euskarritan lau izan dira.

Hortaz, kaleko errotulazioa osotara %53 izan da, beste motatako seinalizazioa %42koa izan den bitartean; ez bata ez bestea ez diren adierazpideak osotara hartutako hizkuntza paisaieko adierazpenen %3,5 izan da.

EUSKARRIA		
KALE ERROTULAZIOA	BESTEKO MOTATAKO SEINALIZAZIOA	BESTERIK
61	48	4



Hizkuntza paisaian zerbait idazten dugunean, honen helburuak anitzak izan daitezke. Motibazio desberdinengatik idatzi diren adierazpenak aurkitzen ahal dira, horrela, gure herri eta hirietako kaleetan. Hala ere, ezin dugu ahaztu guk kaleko errotulazioak eta seinalizazio ofizialak hartu ditugula kontuan gure datuak biltzerako orduan. Beraz, honek testuen helburuak asko murriztea edo aukera txikiagoak izatea ekarri du.



Aipatu ditugun arrazoiengatik, helburuari dagozkion emaitzak ez dira oso anitzak; ez dute herri bateko hizkuntza paisaiak izan ohi duen aniztasuna erakusten, baina horrela aurreikusitako eta pentsatutako emaitzak dira.

Datuen gehien gehienak informazioa ematen du: hau da, aurkitu ditugun ehun eta hamar irudik dute informazioa emateko helburua. Beraz, irudi informatiboak dira aztertu ditugunen %97; aldarrikapenari dagozkion bi irudi aurkitu ditugu (%1,7) eta zehaztu gabeko beste bat, bakarra (%0,8).

Sakontze egitasmoa

Lehen esan bezala, hizkuntza paisaiaren atal zehatz eta konkretu batzuk aukeratzeak askotan ikerketa gaia murriztea ekartzen du, eta ez du hizkuntza paisaiaren osotasunak erakutsi ohi duen aniztasun hori guztia aintzat hartzen.

HELBURUA				
INFORMAZIOA	ALDARRIKAPENA	PUBLIZITATEA	AKUSATORIOA	ZEHAZTU GABEA
110	2	0	0	1



Aurretik aipatu dugunarekin guztiz lotuta dago irudien izaeraren inguruko aldagaia ere bai. Izan ere, aztertu nahi genituen testuak kaleko errotulazioak eta seinalizazioak zirenez, hartu ditugun datuen gehiengo oso batek izaera ofiziala du.


Izaerari dagokionean, hirutan bereizi izan dugu beti hau: ofiziala (hau da, erakunde publikoek, instituzioren batek... egina den mezua edo testua), ez ofiziala (beste

Sakontze egitasmoa

norbaitek egina, instituzioa ez dena) eta pribatua (enpresek, izaera pribatuko ekimenek, bestelako inizatibek sortua.

Datuek, espero genezakeen bezala, mezu ofizialen gehiengoak agerian jartzen dute: irudietatik ehun eta hamar ofizialak ziren (osotara, %97) eta hiru ez ofizialak (%3). Beraz, mezu ofizialen nagusitasuna ezin uka dezakegu, hauek berauek aztertu nahi izan baititugu soilik.

IZAERA			
OFIZIALA	EZ OFIZIALA	PRIBATUA	ZEHAZTU GABEA
110	3	0	0



Herriz herri ematen diguten informazioari erreparatzen badiogu, datu esanguratsuak lortuko ditugu. Izan ere, instituzioek jokatzeko duten paperaz eta dituzten jarreraz hizkuntza paisaiak informazio baliatsua ematen digu. Datu orokorrek hizkuntza paisaiaren inguruan dauden desorekak ikustea zailtzen dute. Beraz, herriz herri euskararen, gaztelaniaren eta bien arteko harremana nolakoa den ikusteko balioko digute datu hauek.

Artazun aurkitu ditugun adierazpideetan, duela hamar urtetik hona egin diren errotulu guztiak elebidunez daude, eta ez dago biolentziarik hizkuntzen artean. Duela gutxi arte eremu ez euskaldunean egonda ere, Artazun jarrerak edo udalaren jokaerak euskararen aldeko jarrerak indartzen dituela esan dezakegu; beste igorle batzuen mezuak zein hizkuntzatan egiten diren jakitea interesgarria litzateke jakiteko ea jarrera orokortua den edo udalaren aldetik emandakoa. Gaztelaniaz aurkitu dugun errotulazio elebakarrak hamabost urte baino gehiago dituela esan dezakegu. Beraz, progresio bate maten dela esaten ahal dugu, Artazuri dagokionean.

Artaxoako datuei erreparatzen badiogu, jaso ditugun hogeita hamar irudi baino gehiagotik hirutan bakarrik aurkitu dugu euskara, eta oso berriak diren errotulazioetan, batzuetan mikrobiolentzia ere erabiliz. Ia errotulazio eta adierazpen guztiak gaztelania hutsean eginak dira herri honetan. Esan dezakegu euskararen estatusari lotzen zaiola, eta baita udalaren euskararekiko jarrerari. Horrela, euskara ia isilpean adierazten da mezu ofizialetan, sistematizatua dagoena, oro har, adierazpen guztiak gaztelaniaz egitea da. Lehen esan dugun moduan, eremu mistoan sartzeko eskaerarik ez zuen egin Artaxoak, eta uko egin zion Euskara Zerbitzu bat eduki ahal izateari. Hizkuntza politiken isla izan daiteke zenbaitetan hizkuntza paisaia eta kasu honetan horrela dela ondorioztatu ahal dugu.

Elizondori dagokionez, eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide den heinean, aztertu dugun hizkuntza paisaiaren erdia baino gehiago euskara hutsean dago; lehentasuna ematen dio hizkuntza honi Baztango Udalak duen kale errotulazioak. Seinale edo testu elebidunak ikusi ditugunean ere, gehienetan lehentasuna euskarari ematen zaio eta, horrela, mikrobiolentziarik apenas ikusi dugu. Nabarmentzekoa da gaztelania hutsean dauden errotuluak ere topatu ditugula, baina haietako asko, itxuraz, Sakontze egitasmoa

duela hamarkadak egina da. Gaztelaniaz bakarrik ikusitako beste errotulu batzuetan, adibidez, kale batzuei dagozkienean, ondoan euskarazkoa ere izan dute. Azpimarratu behar dugu seinale berrienetako asko euskaraz daudela idatzita soilik.

Garesko hizkuntza paisaiari erreparatzen badiogu, datuak anitzagoak direla esan behar dugu. Izan ere, erabili ditugun hamazazpi irudietatik, lau dira gaztelaniaz eta elebakar idatzita daudenak; gainontzekoetan, formula elebiduna aukeratu dute, eta horien artean zazpi kasutan eman diote lehentasuna gaztelaniari, beste lautan hizkuntzen arteko oreka azaleratu dute. Horrela, errotuluen inguruko hizkuntza politika urtez urte aldatuz joan dela esan dezakegu, egonkortu gabea izan dela.

4.2 Emaitzak herriz herri

Atal honetan herriz herriko azterketa kuantitatiboa egingo dugu. Aurreko emaitzak orokorrak direla kontuan hartuta, tokian toki hizkuntza paisaiak eta hizkuntza politikek (eta, beraz, herrian euskarak duen estatusari lotutako ondorioek) nola eragiten duten aztertuko dugu. Hortaz, hizkuntzei, errotulu motari eta mikrobiolentziei lotutako aldagaiei erreparatuko diegu atal honetan, eta zehaztasun gehiago emango diegu aurretik aipatutako datu orokorreiei.

▪ Artaxoa

Artaxoan hizkuntza paisaia ofizialari lotutako berrogeita hiru irudi hartu ditugu aintzat ikerketan. Hizkuntzei dagokienean, berrogeita hiru seinale edo errotulazio hauetatik, berrogeita bi gaztelania hutsean idatzita daude, eta bat euskaraz eta gaztelaniaz. Datu hauek kontuan hartuta, esan dezakegu ia-ia errotulazio guztiak espainolez idatzita egonen direla herri honetan. Aipatzekoa da euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dagoen errotulua berria dela.

HIZKUNTZAK			
EUSKARA	GAZTELANIA	EUSKARA ETA GAZTELANIA	BESTERIK
0	42	1	0

Aurreko datuei lotuta, Artaxoan aurkituko ditugun ia errotulu eta seinalizazio guztiak elebakarrak dira eta espainolez idatzita daude. Gaztelania da guztiz nagusi Artaxoako hizkuntza paisaian, euskara behin bakarrik ahal izan dugu eta.

MOTA		
ELEBAKAR	ELEBIDUN	ELEANITZ
42	1	0

Mikrobiolentziez ari garelarik eta euskarari lotuta, aurretik sailkatu ditugun mikrobiolentzia motetatik bat aurkitzen dugu Artaxoan, guztiz zabaldua dena eta errotulu gehien-gehienetan azaltzen dela. Joera errokoa eta nagusia da: berrogeita hiru seinaletik berrogeita bitan ez da euskararik azaltzen, ikusezintasuna da kasu honetan nabarmentzen dena. Elebidunez idatzita aurkitu dugun errotuluan ere ("Ayuntamiento

de Artajona/Artaxoako Udala”) beste mikrobiolentzia bat aurkitu dugu: izan ere, “Artajona” askoz modu nabarmenago eta handiagoan azaltzen da; hau da, gaztelaniari lehentasuna eman zaio kasu honetan.

MIKROBIOLENTZIA			
LEHENTASUNA GAZTELANIARI	EUSKARARIK EZ	EZ	ZEHAZTU GABE
1	42	0	0

Artaxoako datuak sailkatuta ikusita, emaitzak halakoak direla esan dezakegu: batetik, Artaxoa eremu ez euskalduneko herria dela, eta, beraz, euskarak ez duela inolako estatusik. Seinale edo errotulu guztiak, bat izan ezik, gaztelaniazkoak dira soilik eta ez dute ia aldaketarik jaso azken urteetan (kasu bakarrean izan ezik). Artaxoako Udaleko errotuluak keinu bat egiten dio euskarari, eta ikusteko dago datozen hilabete eta urteetarako joera izango den hori edo errotulu bakarrean geratuko den. Sistematikoki, beraz, gaztelania da nagusi herri honetan. Errealitate soziolinguistikoa pixkanaka hobetzen joan bada ere (eta euskara gaitasun eta erabilera datuak oso txikiak izanda), hizkuntza paisaia ofizialak ez dio horri erantzun. Ikerketa zabalago batean, hizkuntza ez ofizialari begiratzeak gako gehiago emango lizkiguke.

i. Artazu

Zazpi irudi hartu ditugu Artazun (oso herri txikia da, kale gutxikoa eta, beraz, errotulu gutxi dituen). Artazuren kasuan, errotulu bat aurkitu dugu gaztelaniaz; gainontzekoak (kale errotulazioak, seinalizazioa...) euskara eta gaztelaniaz idatzita daude.

HIZKUNTZAK			
EUSKARA	GAZTELANIA	EUSKARA ETA GAZTELANIA	BESTERIK
0	1	6	0

Beraz, Artazuko errotulu bat elebakarrez idatzita dago (gaztelaniaz) eta gainontzekoak euskara eta gaztelaniaz. Errotulu elebakarra elebidunak baino urte batzuk zaharragoa da.

MOTA		
ELEBAKAR	ELEBIDUN	ELEANITZ
1	6	0

Mikrobiolentziei dagokienez, beraz, euskararik ez dagoen errotulu bat aurkitu dugu. Gainontzeko kasuetan, mikrobiolentziarik ez dagoela ebatzi dugu. Jakin badakigu datu jasoketa hau subjektiboa izan daitekeela; izan ere, gaztelania kasu gehienetan lehenengo azaltzen da eta gero euskaraz (salbuespen batekin: “herriko PLAZA del pueblo”), baina tamaina eta letra mota berdinarekin.

MIKROBIOLENTZIA			
LEHENTASUNA GAZTELANIARI	EUSKARARIK EZ	EZ	ZEHAZTU GABE
0	1	6	0

Artazuren kasuan, bereziki deigarria da hizkuntza paisaiaren egoera; izan ere, 2017ra arte Artazu eremu ez euskaldunean kokatuta zegoen, eta kale errotulazio elebidunak hamar urte dauzka gutxienez. Esan dezakegu estatusaren gainetik udalak euskararen aldeko jarrera bazuela eta inizatiba hartu zuela hizkuntza paisaia elebiduna izan zedin. Hizkuntza paisaia ez ofizialarekin pareko gertatzen den jakitea ere, hurrengo ikerketa baterako, interesgarria litzateke.

ii. Elizondo

Berrogeita zortzi irudi jaso ditugu Elizondon. Aurretik aipatu ditugun herriekin konparatuta eta eremu euskaldunekoa dela jakinda (euskararen gaitasun eta erabilera datuak ere guztiz desberdinak dira), herri honetan aurkitu ditugun datuak ere desberdinak dira.

Aipatu ditugun errotulazioetatik hogeita bat euskaraz idatzita daude, sei gaztelaniaz eta hogeit euskaraz eta gaztelaniaz. Elizondoren kasuan beste kasu bat ere topatu dugu: gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez idatzitako panel bat, alegia.

HIZKUNTZAK			
EUSKARA	GAZTELANIA	EUSKARA ETA GAZTELANIA	BESTERIK
21	6	20	1

Hortaz, analisirako hartu ditugun adierazpenetatik, hogeita zazpi elebakarrak izan

dira eta hogeiei elebidunak; lau herritatik eleanitza den seinale bakarra topatu dugu seinalizazio ofizialean, eta Elizondoren izan da.

MOTA		
ELEBAKAR	ELEBIDUN	ELEANITZ
27	20	1

Mikrobiolentzien atala izango da, seguraski, Elizondotik ikus dezakegun atalik interesgarriena. Izan ere, errotulazio elebakarra egoteak, kasu honetan (Artaxoaren, Garesen edo Artazuren kontrara) ez du euskararekiko mikrobiolentziarik ekartzen askotan. Elebakarra den errotulazio gehiena euskaraz idatzita dago, eta euskararen normalizaziorako pausu bezala ulertzen dugu kasu honetan. Gainera, aipatzekoa da gaztelania hutsean dauden errotuluak duela hamarkada batzutakoak direla, edo nahiko zaharrak (ituraz behintzat). Azpimarratu nahiko genukeen beste datu bat honakoa da: elebidunak diren errotulu gehienetan euskarari lehentasuna ematen zaio, eta honekiko jarrera eta ekinbide positiboa nabarmentzen dira Elizondoren kasuan horrela; gainera, hau sistematikoa dela antzematen da, ez dago desberdintasun handirik errotulazioari dagokionez eta homogeneitaterantz doala esango genuke. Errotulu eleanitzean, aldiz, gaztelaniari beste hiru hizkuntzekiko nagusitasuna ematen zaio nabarmenki. Esatekoa da panel honen igoera Nafarroako Gobernua dela, eta ez Baztango Udala.

MIKROBIOLENTZIA			
LEHENTASUNA GAZTELANIARI	EUSKARARIK EZ	EZ	ZEHAZTU GABE
3	6	39	0

iii. Gares

Hamazazpi irudi hartu ditugu Garesen. Horietatik guztietatik, hamahiru gaztelania eta euskaraz idatzita zeuden, eta lau gaztelaniaz.

HIZKUNTZAK			
EUSKARA	GAZTELANIA	EUSKARA ETA GAZTELANIA	BESTERIK
0	4	13	0

Idatzi motei dagokienean, beraz, gehienak (hamahiru) elebidunez idatzita daude

eta gainontzekoak (lau) elebakarrak dira, hizkuntza bakarrari lotuta daude. Ez dugu idatzi eleanitzik topatu.

MOTA		
ELEBAKAR	ELEBIDUN	ELEANITZ
4	13	0

Garesko datuek ere gainontzeko herriekiko desberdintasunak eskaintzen dizkigute mikrobiolentziei erreparatzen badiegu edo hizkuntzen artean hizkuntza paisaian zein harreman dagoen aztertzen baldin badugu. Garesen kale errotulazioak desberdinak dira haien artean, urteei eta udalak egindako errotulazio desberdinei jarraiki. Horrela, gehienetan gaztelaniari lehentasuna ematen zaio, oso kasu gutxitan ez dago mikrobiolentziarik (bakarrean). Euskararik ez da agertzen seinale batzuetan (zaharrak), eta berriagoetan lehentasuna gaztelaniari ematen zaio. Hala eta guztiz ere, ez gara hiru seinale sailkatzeko gai izan, mikrobiolentziari dagokionez.

MIKROBIOLENTZIA			
LEHENTASUNA GAZTELANIARI	EUSKARARIK EZ	EZ	ZEHAZTU GABE
9	4	1	3

Garesko hizkuntza paisaiari buruz esan dezakegu hau ez dela batere sistematikoa; hau da, urtez urte eta udalean eman diren aldaketei lotuta aldatu da hizkuntza paisaia ere, eta zeuden berritze beharrei lotuta udal bakoitzak hizkuntza politika desberdin bat eraman du aurrera. Horrela, sistematizazio ezaren ondorioz, hizkuntza paisaia anitza eta aldakorra dugu Garesen, arau konkreturen bati lotu gabekoa.

Herrien arteko desberdintasunak eta tokian tokiko berezitasunak ezagutu ondotik, hurrengo orrialdean dugun konparaketarako taula argigarria da tokian toki hizkuntzek zein tratamendu jasotzen duten ezagutu eta ulertu ahal izateko. Zenbakiez haratago portzentaiek ere lekuan leku hizkuntza politikak nolakoak diren edo, behintzat, hauek hizkuntza paisaian nola islatzen diren ikus dezakegu, ondorioak argiago ateratzeko eta egoera hobeki ulertu ahal izateko.

4.3 Herrien arteko konparazioa

HIZKUNTZAK	EUSKARA	GAZTELANIA	EUSKARA + GAZTELANIA	BESTERIK
ARTAXOA	0 (%0)	42 (%98)	1 (%2)	0 (%0)
ARTAZU	0 (%0)	1 (%14)	6 (%86)	0 (%0)
ELIZONDO	21 (%44)	6 (%12,5)	20 (%42)	1 (%2)
GARES	0 (%0)	4 (%23,5)	13 (%76,5)	0 (%0)

MOTA	ELEBAKAR	ELEBIDUN	ELEANITZ
ARTAXOA	42 (%98)	1 (%2)	0 (%0)
ARTAZU	1 (%14)	6 (%86)	0 (%0)
ELIZONDO	27 (%56)	20 (%42)	1 (%2)
GARES	4 (%23,5)	13 (%76,5)	0 (%0)

MIKROBIOLENTZIA	GAZTELANIARI LEHENTASUNA	EUSKARARIK EZ	EZ	ZEHAZTASUNIK EZ
ARTAXOA	1 (%2)	42 (%98)	0 (%0)	0 (%0)
ARTAZU	0 (%0)	1 (%14)	6 (%86)	0 (%0)
ELIZONDO	3 (%6)	6 (%12)	39 (%81)	0 (%0)
GARES	9 (%53)	4 (%23)	1 (%6)	3 (%18)

5. ONDORIOAK

Ikusi ahal izan dugun moduan, salbuespenak salbuespen, udalerrietako hizkuntza politiken ondorio zuzena da herrietako hizkuntza paisaia ere. Udalaren eta bestelako instituzioek hizkuntzekiko eta, gure kasuan, bereziki euskararekiko duten tratamendua honen inguruko jarrera definitzen du hizkuntza paisaiak.

Urtez urte, udalek dituzten hizkuntza politikak aldatuz joan dira aztertu ditugun kasuetan; horrela, kasu batzuetan legeak dioena jarraitu gabe ere errotulazioak aldatu eta euskararekiko apustua antzematen da (Artazuren kasuan, adibidez; eremu ez euskaldunean egonda errotulazio elebiduna ezarri zuen udalerri honek). Beste kasu batzuetan, udalak errotulazio aldakorrak egin ditu eta garapen bat izan du hizkuntza paisaiak ere, hizkuntza politiken edo euskararen aldeko jarrerak aurrera egin duten bitartean (Garesen edo Elizondoren kasuan, esate baterako). Azken kasu batean, hizkuntza paisaia ia sistematikoki gaztelania hutsean ageri da, euskarari egiten zaizkion keinu txiki batzuekin bada ere (hauxe da Artaxoaren kasua). Ikusteko dago honek ere aurrerapausuak emanen dituen eta aldaketak denboran egonkorak izanen diren.

Ezinbestekoa iruditzen zaigu Nafarroan esanguratsuak izan daitezkeen herrietan hizkuntza paisaiaren inguruko datuak jasotzea, hauek sistematizatzea eta denboran iraupena izanen duten ikerketa iraunkor eta egonkorak egitea, hizkuntza paisaiaren inguruko argazki erreal eta eguneratu bat eduki ahal izateko. Izan ere, gure ustez, behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, hizkuntza paisaia hizkuntza politiken eta euskararen estatusaren inguruko isla da.

Hizkuntza paisaiaren datuen jasoketa eta azterketa analisirako tresna da; baina hizkuntza politikak sistematizatu eta hauek hobetzeko bide ere izan daitezke. Euskararen aldeko jarrerak eta euskararen prestigioa hobetu ditzakete eta udalentsat ere erreminta interesgarria izan daitezke, politika zehatz batzuk aurrera eramateko orduan. Gure ustez, sentsibilizaziorako tresna da hizkuntza paisaia.

Euskararen estatusak ere badu zerikusia hizkuntza paisaian ematen zaion tratamenduarekin. Ofizialtasunari erreparatzen badiogu, hizkuntza paisaia euskaldunena eta euskarak ia biolentziarik jasaten ez duena hau ofiziala denean ematen

da (aztertu ditugun kasuen artean, Elizondo da honakoa). Euskarak ofizialtasunik ez duen lekuetan, aldiz, tokian tokiko politikek dute eragina honetan, ez euskararen prestigioak. Beraz, esan beharra dago hizkuntza paisaia justu bat eraikitzerako orduan euskara ofiziala izatea euskarri handia dela. Udalerrri euskaldunen kasuan, gainera, Udalerrri Euskaldunetako Mankomunitatearen parte izatea ere garrantzitsua da eta tresnak eskaini ahal dizkio Baztangoa bezalako udal bati. Hipotesietan esaten genuen bezala, estatua gakoa da hizkuntza paisaiaren kudeaketan.

Proposatzen genituen ikerketarako galderei dagokienean, honakoa baieztu dezakegu: alde batetik, hizkuntza paisaiak zerikusi zuzena du herriko hizkuntza politikekin, ez bairik gabe. Horren erakusle da Elizondoko kasua, baina, batez ere, euskara ofiziala ez den beste tokietan ematen dena. Beste alde batetik, ofizialtasunak egonkortzen badu ere, hizkuntza paisaia aldarra da aztertu ditugun kasu guztietan eta garaian gara politika eta apustu desberdinak egin izan direla eta hauek garatzen joan direla esan dezakegu. Beraz, hizkuntza paisaia bera ere, hizkuntza politikak eta euskararekiko jarrerak bezala, aldarra da.

Gure aburuz, hizkuntza paisaian eragitea eta sentsibilizazio hori guztia alor publikotik aurrera eramatea ezinbestekoa da, are gehiago hizkuntza gutxiak tartean baldin badaude. Izan ere, hizkuntza baten prestigioa arlo publikotik eta udaletatik sustatzea erdugarria da bertako herritarrentzat. Euskararen normalizaziorako bidean, hizkuntza paisaia zaintzea eta horren araberrako planak egitea arlo bat gehiago da, baina gutxietsi ezin den arloa.

Bukatzeko, ohar bat gehiago egin nahiko genuke: hizkuntza paisaia bere osotasunean aztertzea eta honen inguruko ikerketak abiatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Are gehiago, Nafarroako hizkuntzen egoera anitza da eta, aipatu ez baditugu ere, gero eta hizkuntza gehiago daude elkarbizitzan geure herrialdean. Horregatik, aniztasunaren kudeaketarako ere beste hizkuntza horiek hizkuntza paisaian nola, noiz, zeren arabera integratu eta horren araberrako hizkuntza politikak ekoizten hastea ere garrantzitsua iruditzen zaigu.

Ondorio orokor moduan, beraz, azken orrialdeetan esan duguna azpimarratu nahiko genuke: hizkuntza paisaiaren azterketa eta analisisa hizkuntza politiken isla da eta euskararekiko jarreretan eta politikean du eragin zuzena. Honetan instituzio publikoek

eta udalek (herritarrengandik gertuen dauden instituzio bezala) ardura berezia daukate eta bide honetan eta hizkuntza gutxituen mesedetan iraunkorki jardutea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Nafarroan euskararen normalizazioak aurretik duen bidea oso luzea da oraindik eta egiteko asko dago: ez dezagun ahaztu bide horretan hizkuntza paisaiak joka dezakeen papera.

BIBLIOGRAFIA

Sakontze egitasmoa

Aizpurua, J. (2013). Euskarari buruzko jarrerak eta iritzia Nafarroan, inkesta soziolinguistikoaren arabera. *Euskera*, 58(1), 73-88.
<http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/77858.pdf>

Altuna, O. (2015). *Diversidad lingüística y cultural. Modelo educativo en Navarra. ¿Segregación, asimilación o integración?* Master Amaierako Lana: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Asociación de Estudios sobre Discurso y Sociedad (2015). Observatorio del discurso: microviolencia lingüística. <http://www.edisoportal.org/investigacion/observatorio-del-discurso/1172-microviolencia-ling%C3%BC%C3%ADstica>

Bastardas i Boada, A. (2005). Fórum universal de les cultures. *Cap a Una 'Sostenibilitat Lingüística': Conceptes, Principis i Problemes De l'Organització Comunicativa Dels Humans Per Al Segle XXI*, Barcelona.

Bastardas i Boada, A. (2000). De la "normalització" a la "diversitat" lingüística: Cap a un enfocament global del contacte de llengües. *Revista De Llengua i Dret*, (34), 151-168.

Baztarrika, P., Martinez de Luna, I., Sarasua, J. (2011). Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren onurak eta zailtasunak. *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 81(4), 145-163. http://www.soziolinguistika.eus/files/Mahai%20Ingurua_0.pdf

Ben-Rafael, E. (2009). A sociological approach to the study of linguistic landscapes. *Linguistic Landscape: Expanding the Scenery*, 40-54.

Ben-Rafael, E., Shohamy, E., Hasan Amara, M., & Trumper-Hecht, N. (2006). Linguistic landscape as symbolic construction of the public space: the case of Israel. *International Journal of Multilingualism*, 3(1), 7-30.

https://www.researchgate.net/profile/Thom_Huebner/publication/233257683_Bangkok's_Linguistic_Landscapes_Environmental_Print_Codemixing_and_Language_Change/links/55e6fc1708ae65b6389921a0.pdf#page=14

Berché, M. P. (2008). El papel de la escuela ante la inmigración y la diversidad lingüística. *Discurso y Sociedad II: Nuevas Contribuciones Al Estudio De La Lengua En Contexto Social*, 717-730. http://stl.recherche.univ-lille3.fr/sitespersonnels/pujol/PUJOL_Castello_08.pdf

Berry, J. W., Kim, U., Power, S., Young, M., & Bujaki, M. (1989). Acculturation attitudes in plural societies. *Applied Psychology*, 38(2), 185-206.

Caldwell, D. (2017). Printed t-shirts in the linguistic landscape. *Linguistic Landscape*, 3(2), 122-148.

Cenoz, J., & Gorter, D. (2006). Linguistic landscape and minority languages. *International Journal of Multilingualism*, 3(1), 67-80. <https://pure.knaw.nl/portal/files/623583/20871.pdf>

Comellas Casanova, P. (2011). Ecología lingüística. *Treballs De Sociolingüística Catalana*, 65.

Coulmas, F. (2009). Linguistic landscaping and the seed of the public sphere. *Linguistic Landscape: Expanding the Scenery*, 13-24.

Crystal, D. (2000). *Language death*. Ernst Klett Sprachen.

Decreto Foral 25/2007, de 19 de marzo, por el que se establece el currículo de enseñanza de la Educación Secundaria Obligatoria en la Comunidad Foral de Navarra. BON, 25 de mayo de 2007, nº 165. <http://www.iesnavarrovilloslada.com/departamentos/filosofia/Documentos/CurriculumESO.pdf>

Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua (2013), *Euskararen egoera Nafarroan, azterketa soziolingüistikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/2013ko%20Azterketa%20Soizlinguistikoa_EUSKARAREN%20EGOERA%20NAFARROAN.pdf

Eusko Jaurlaritza (2011). In Eusko Jaurlaritza (Ed.), *V. Inkesta Soziolinguistikoa* (1st ed.).

Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf

Eusko Jaurlaritza (2016), Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa. In Eusko Jaurlaritza (Ed.), *VI. Inkesta Soziolinguistikoa; Euskararen eremu osoa* (1st ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557

Eusko Jaurlaritza (2016), Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa. In Eusko Jaurlaritza (Ed.), *VI. Inkesta Soziolinguistikoa; Nafarroako Foru Komunitatea* (1st ed.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

<https://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua1729.pdf>

Graddol, D., Swann, J. (1989). *Gender voices*. Oxford: Basil Blackwell

Haugen, Einar (1972) "The ecology of language" in Anwar S. Dil (ed.) *The Ecology of Language*, pp. 325-339. Stanford: Stanford University Press.

Huebner, T. (2009). A framework for the linguistic analysis of linguistic landscapes. *Linguistic Landscape: Expanding the Scenery*, 70-87.

Idiazabal Gorrotxategi, I. (2011). Eleaniztasuna hezkuntzaren derrigorrezko beste utopia bat? *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (81), 89-105.
<http://www.soziolinguistika.eus/files/Itziar%20Idiazabal.pdf>

Laitinen, M., & Zabrodskaia, A. (2015). Dimensions and dynamics of sociolinguistic landscapes in Europe.
http://www.peterlang.com/download/extract/59655/extract_261708.pdf

Landry, R., & Bourhis, R. Y. (1997). Linguistic landscape and ethnolinguistic vitality an

empirical study. *Journal of Language and Social Psychology*, 16(1), 23-49.

Lanza, E., & Woldemariam, H. (2008). Language policy and globalization in a regional capital of Ethiopia. *Linguistic Landscape: Expanding the Scenery*, 189.

Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre del Vascuence. BON, 17 de diciembre de 1986, nº 154.

Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa. NAO, 10 de diciembre de 2013, nº 295. <https://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>

Lomas, C., Osoro, A. & Tusón, A. (1993). *Ciencias del lenguaje, competencia comunicativa y enseñanza de la lengua*. Paidós Ibérica.

Madariaga Orbea, J.M. (1998). Aproximación a la representación social del euskera en la adolescencia. *Revista De Psicodidáctica*, (6), 33-44.

Malinowski, D. (2008). A multimodal performative view. *Linguistic landscape: spanning the scenery*, 107-125.

Martín Rojo, L., & Mijares, L. (2007). "Sólo en español": Una reflexión sobre la norma monolingüe y la realidad multilingüe en los centros escolares. *Revista De Educación (Madrid)*, (343), 93-112. http://www.revistaeducacion.mec.es/re343/re343_05.pdf

Martín Rojo, L., & Molina, C. (2013). *Madrid multilingüe: una ciudad en transformación*.

Martín Rojo, L., & Pérez Milans, M. (2007). Barreras interaccionales en aulas multilingües: Una aproximación crítica a la comunicación intercultural. *Cultura, Lenguaje y Representación: Revista De Estudios Culturales De La Universitat Jaume I*, 4, 203-226.

Martín Rojo, L. (2012). Paisajes lingüísticos de indignación. Prácticas comunicativas para tomar las plazas. *Anuari Del Conflicte Social*, (2012) <http://revistes.ub.edu/index.php/ACS/article/viewFile/6276/8020>

- Martín Rojo, L. (2004). Dilemas ideológicos. *Estudios de Sociolingüística.Linguas, sociedades e culturas*, 5(2), 191-206.
- Montoya Ávila, A. *La construcción de las actitudes lingüísticas: exploración en dos colegios bilingües Bogotanos* (Universidad Nacional de Colombia).
- Moreno Cabrera, J. C. (2000). *La dignidad e igualdad de las lenguas: Crítica de la discriminación lingüística*. Alianza Editorial.
- Moreno Cabrera, J. C. (2006). *De Babel a Pentecostés: Manifiesto plurilingüista*. Barcelona: Horsori.
- Muñoz Carrobles, D. (2010). Breve itinerario por el paisaje lingüístico de Madrid. *Ángulo Recto.Revista De Estudios Sobre La Ciudad Como Espacio Plural*, 2(2)
- Navarro García, J. L., Huguet Canalís, A., & Janés Carulla, J. (2008). Actitudes hacia la lengua materna y la del país de acogida por parte de los escolares inmigrantes. *Textos De Didáctica De La Lengua y De La Literatura*, (48), 83-91.
- Observatorio de estudios sobre Discurso y Sociedad: microviolencia lingüística.
www.edisoportal.org/investigacion/observatorio-del-discurso/1172-microviolencia-ling%C3%BC%C3%ADstica
- Rodriguez Barcia, S., & Ramallo, F. (2015). *Graffiti y conflicto lingüístico: El paisaje urbano como espacio ideológico*. *Revista Internacional De Lingüística Iberoamericana*, 25, 131-153.
https://www.researchgate.net/profile/Fernando_Ramallo2/publication/283547409_Graffiti_y_conflicto_lingstico_el_paisaje_urbano_como_espacio_ideolgico/links/5651960408aefe619b1736e5.pdf
- Sánchez, F.R., & Tauste, A. M. V. (1996). Graffiti y pintadas en Madrid : arte, lenguaje, comunicación. *Espéculo: Revista de Estudios Literarios*, 3 (4).
<http://pendientedemigracion.ucm.es/info/especulo/numero4/graffiti.htm>
- Scollon, R., & Scollon, S. W. (2003). *Discourses in place: language in the material world*.

Routledge.

Serra, C. (2004). Etnografía escolar, etnografía de la educación. *Revista De Educación (Madrid)*, (334), 165-176. www.revistaeducacion.mepsyd.es/re334/re334_11.pdf

Sloboda, M. (2008). A comparative analysis of (post) communist Belarus, Czech Republic and Slovakia. *Linguistic Landscape: Expanding the Scenery*, 173.

Spolsky, B. (2009). Prolegomena to a sociolinguistic theory of public signage. *Linguistic Landscape: Expanding the Scenery*, 25-39.

Van Dijk, T. A. (2003). *Ideología y discurso: Una introducción multidisciplinaria*. Ariel.

Van Dijk, T. A. (2011). *Discurso y poder*. Editorial Gedisa.

Wokusch, S. (2008). Didactique intégrée des langues: La contribution de l'école au plurilinguisme des élèves. *Babylonia*, 1(08), 12-14.

ERANSKINAK (ARGAZKIAK)

Artaxoa

Sakontze egitasmoa







Artazu



Sakontze egitasmoa

Elizondo





Gares



Sakontze egitasmoa

